




**Autoridad Vasca de
Protección de Datos**

MEMORIA



**Datuak Babesteko
Euskal Agintaritza**
Autoridad Vasca de
Protección de Datos



Datuak Babesteko Euskal Bulegoa - Agentzia Vasca de Protección de Datos

Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, 71, 3. solairua

01008 VITORIA-GASTEIZ

avpd@avpd.eus

www.avpd.eus

MEMORIA 2023

ISSN: 2253-9506

Aldizkakotasuna: urtero

D.L. VI 312-2006

Esta obra está bajo Licencia Creative Commons



Reconocimiento (by)

Aske zara:

- lan hau kopia, banatu eta jendurrean hedatzeko
- Bernahasteko - lana egokitzeko
- lan hau merkataritza xedeetarako erabiltzeko

Baldintza hauetan:

- Aitortu - Lanaren kredituak aitortu behar dituzu, egileak edo baimendunak zehaztutako eran (baina ez aditzera eman ez haien babesaren duzunik edo haiek obraren erabilera hori babesten dutenik).

Informazio gehiago: <http://creativecommons.org/licenses/by/3.0/es/legalcode.es>



AURKIBIDEA

ORRIALDEA

1	AURKEZPENA	4
2	KONTSEILU AHOLKU-EMAILEA.....	6
2.1	KONTSEILU AHOLKU-EMAILEKO KIDEAK	6
2.2	KONTSEILUAK EGINDAKO BILERAK	6
3	AHOLKULARITZA-JARDUERA.....	9
3.1	TELEFONO BIDEZKO ARRETA, ZUZENeko ARRETA ETA ARRETA TELEMATIKOA	10
3.2	KONTSULTAK	11
3.3	IRIZPENAK	11
3.4	TXOSTENAK.....	12
3.5	BATZARRAK.....	13
4	KONTROL-JARDUERA	15
4.1	ESKUBIDEEN BABESA	16
4.2	SALAKETAK	21
4.3	ADMINISTRazio PUBLIKOEN ARAU-HAUSTE PROZEDURAK	28
4.4	AUTOAK ETA EPAIAK	38
5	SEGURTASUN-ARRAKALAK JAKINARAZTEA	40
6	DATUAK BABESTEKO ORDEZKARIEN ERREGISTROA.....	43
6.1	TOKI ADMINISTRazioA	44
6.2	TRATAMENDU-ARDURADUNEK DATUAK BABESTEKO ORDEZKARIAREKIN DUTEN LOTURA.	44
7	BARNE KUDEAKETA.....	46
7.1	EGITURA ETA LANGILERIA	46
7.2	AURREKONTUAK	48
7.3	BALIABIDE MATERIALAK	50
7.4	LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOKO POLITIKA	51
7.5	KUDEAKETA JASANGARRIA ETA INGURUMEN-INPAKTUA	52
8	AHOLKULARITZA JURIDIKO ETA IKUSKARITZA UNITATEARI BURUZKO DATUAK	53
8.1	AHOLKULARITZA-EGINKIZUNARI BURUZKO DATUAK	53
8.2	KONTROL-EGINKIZUNARI BURUZKO DATUAK	53
9	BARNE KUDEAKETARI BURUZKO DATUAK	55
9.1	AURREKONTU-PLANTILLARI BURUZKO DATUAK	55
9.2	AURREKONTU-BETEARAZPENARI BURUZKO DATUAK	56



1 AURKEZPENA

Memoria hau, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren (DBEA) 2023. urteko memoria, Europar Batasuneko Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren (DBEO) 59. artikuluan ezarritako agindua betetzeko prestatu da, artikulua horren arabera jarduerari buruzko txosten bat egin behar baita, zeina parlamentuari eta gobernuari bidali behar baitzaie. Dokumentu honen helburua da Agintaritzak aurrean egin duen jarduerarik garrantzitsuenaren berri ematea euskal gizarteari, bereziki herritarren pribatutasuna babesten jarduten duten agenteei, eta funtsean euskal sektore publikoa osatzen duten enteei. Asmoa da euskal gizartearen aurrean kontu ematea, eta, era berean, datuen babesaren arloko jardunbiderik onenak definitzeko orientabide gisa erabili ahal den dokumentu bat aurkeztea.

2023. urtean, DBEAren ibilbidean bi mugarri nagusi egon dira. Alde batetik, enteen Zuzendaritza aldatzea. 2023ko uztailan Unai Aberasturi Gorriño DBEAko zuzendari berri izendatu zen Margarita Uriaren, aurreko zuzendariaren ordean. Izendatu aurretik, zuzendari berriak hurrengo urteetan bere agintaldiaren gidari izan behar zuen plan estrategikoa aurkeztu zuen Eusko Legebiltzarrean. Dokumentu hori instituzioaren web-orrian dago eskuragarri.

Beste aldetik, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren abenduaren 21eko 16/2023 Legea onartu zen, eta 2024ko urtarrilaren 4an Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu. Hainbat arau onartu eta indarrean jarri dira: Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 3/2018 Lege Organikoa -Europako araua barneko esparrura egokitzen duena-; 680/2016 Zuzentaraua, pertsona fisikoak babestearen gainekoa, agintari eskudunek arau-hausteak edo zigor penalak prebenitu, ikertu, detektatu edo epaitzeko asmoz datu pertsonalak tratatzeari buruz eta datu horiek aske zirkulatzeari dagokionez; eta 7/2021 Lege Organikoa, arau-hauste penalak prebenitu, detektatu, ikertu eta epaitzeko eta zehapen penalak betearazteko tratatutako datu pertsonalak babesteari buruzkoa. Horren ostean, beharrezkoa zen autonomia-erkidegoko araudia esparru arauemaile berrira egokitzea. Hala izanik, lege berria onartzea funtsezko mugarria izan da, gure kontrol-agintaritzaren funtzionamendua eta antolakuntza Europako eta estatuko arau berrietara egokitzeko; gainera, buru eman zaio legearen aurreproiektua onartzeaz eta Eusko Legebiltzarrean izapidetzeaz batera 2022an hasitako prozesuari.

Aparteko bi gertakari horiez harago, DBEAk jarduera zorrotz eta biziari eutsi dio. Lehenengoz, prebentzio-jarduera egin du, eta horretarako hartu dituen oinarrien artean nagusia izan da gaur egungo gizarte guztiz digitalizatuan pribatutasunak duen garrantziari buruzko kontzientziazioa, orokorrean herritarrena, eta, bereziki, administrazioena; eta beste oinarria da, berriz, enplegatu publikoen prestakuntza. Esparru horretan aholkularitza-eginkizun garrantzitsua ere garatu da, datuen babesari buruzko araudia kasu zehatz batzuetan aplikatzeko moduari buruz egon daitezkeen zalantzak ebatziz. Bigarrenaz, ohikoa duen kontrol-jarduera egin du; alde horretatik, eskubideak babesteko prozedurei, arau-hausteei eta beste hainbati buruzko espedienteak izapidetu ditu. Hirugarrenaz, laguntzako eta lankidetzako jardura nabarmena egin du beste ente batzuekin; hain zuzen ere, estatuan jarduten duten gainerako kontrol-agintaritzekin nahiz sektore estrategikoetan -



esate baterako, osasunean, hezkuntzan edo segurtasunean- aritzen diren beste administrazio batzuekin, sektore horietan datuen babesak garrantzi berezia duela aintzat hartuta.

Memoria hau benetako gardentasun-ariketa da. Horren bidez, euskal gizartea osatzen duten agente batzuek eta besteek fiskalizatu ahalko dute orduan Datuak Babesteko Euskal Bulegoa zenak 2023. urtean egin zuen jarduera, eta, gainera, laguntza emango die datu pertsonalen tratamenduen arduradunei, funtsean euskal sektore publikoko enteei, datuen babesari buruzko araudia eta entearen jardura ezagutzeko eta behar bezala ulertzeko.

Unai Aberasturi Gorriño

Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren lehendakaria





2 KONTSEILU AHOLKU-EMAILEA

Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren (DBEA) abenduaren 21eko 16/2023 Legean ezarrita dagoenaren arabera, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren (DBEA) Kontseilu Aholku-emailea DBEAko lehendakariari aholkua ematen dion kide anitzeko organoa da, eta lege horren 9. artikulua xedatzen du nortzuk osatzen duten: Eusko Legebiltzarrak, Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek, Euskadiko toki entitateek eta Euskal Herriko Unibertsitateko ordezkari bik (bata informatika esparrukoa eta bestea oinarrizko eskubideen esparrukoa).

2.1 KONTSEILU AHOLKU-EMAILEKO KIDEAK

2023ko abenduaren 31n honako hauek ziren Kontseilu Aholku-emaileko kideak:

- **Raúl García Ezquerro jauna.** Laguardiako alkatea. Euskadiko toki entitateen ordezkaria.
- **Montserrat Auzmendi del Solar andrea.** Eusko Legebiltzarreko legelaria.
- **Nieves Martínez de Antoñana Blanco andrea.** Araubide Juridikoaren zuzendaria. Lehendakaritza.
- **Javier Bikandi Irazabal jauna.** Bizkaiko Foru Aldundiko Koordinaziorako eta Estrategia Digitalerako zuzendari nagusia, Foru Aldundien ordezkari gisa.
- **Eduardo Jacob Taquet jauna.** Ingeniaritza Telematikoko katedraduna. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- **Iñaki Esparza Leibar jauna.** Lehendakaria. Zuzenbide Prozesaleko katedraduna. Euskal Herriko Unibertsitatea.

DATUAK BABESTEKO EUSKAL AGINTARITZAKO KONTSEILU AHOLKU-EMAILEAREN ANTOLAKETAKO ETA FUNTZIONAMENDUKO ARAUEN 6. artikuluan ezarritakoarekin bat, Ainara Ugalde López andrea, DBEAko idazkaritza nagusia, Kontseilu Aholku-emaileko idazkaria zen.

DATUAK BABESTEKO EUSKAL AGINTARITZAKO KONTSEILU AHOLKU-EMAILEAREN ANTOLAKETAKO ETA FUNTZIONAMENDUKO ARAUEN 7. artikuluko 8. puntuan ezarritakoarekin bat, DBEAko lehendakari Unai Aberasturi Gorriño jauna Kontseilu Aholku-emailearen bileretan egoten da, hitzarekin, baina botorik gabe.

Kontseilu Aholku-emailearen lehendakari kargua txandakakoa da eta urtero aldatzen da, DATUAK BABESTEKO EUSKAL AGINTARITZAKO KONTSEILU AHOLKU-EMAILEAREN ANTOLAKETAKO ETA FUNTZIONAMENDUKO ARAUEN 4.1 artikuluan ezarritakoarekin bat.

2.2 KONTSEILUAK EGINDAKO BILERAK

Kontseilu Aholku-emaileak honako bilera hauek egin zituen 2023an:

- **2023ko ekainaren 15ean, ohiko bilera.** Bilera hartan azaldu zenez, 2023an, Kontseilu Aholku-emaileko lehendakaria lurralde historikoen ordezkari Aiala Olarte



Hurtado andrea izango da, Kontseilu Aholku-emailearen Antolaketako eta Funtzionamenduko Arauetan artikuluan ezarritako urtebeteko txandaren eta hurrenkeraren arabera. Gainera, martxoaren 30ean, Ainara Ugalde López DBEAko idazkaritza nagusi izendatu da, eta bera izango da Kontseilu Aholku-emaileko idazkaria. Pedro Alberto González González, aurreko idazkaria, gonbidatu gisa egon da bileran, martxoaren 30a baino lehen kudeatutako gaien berri emateko. Lurralde historikoen ordezkaritzari dagokionez, Arabako Foru Aldundiaren izendapena ekainean amaituko dela azaldu da; beraz, Kontseiluaren Idazkaritzak Bizkaiko Foru Aldundiari eskatuko dio datorren 18 hilabeteetarako -2024ko abendura arte- ordezkari berria izenda dezala. Toki-entitateei dagokienez, duela gutxi egindako hauteskundeen ostean EUDELen osaera aldatuko dela aurreikusten da. Beraz, datozen lau urteetarako ordezkari berria izendatzeko eskatuko da.

Bileran, halaber, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren (DBEB) egitura organikoaren aldaketa ere aztertu da, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrera (DBEO) egokitu behar baita. Proposamena aurreko bileran onartu zen, eta DBEBko zuzendariak martxoaren 29an egitura organikoaren bigarren aldaketa onartu zuen. Aldaketa hura apirilaren 13an argitaratu zen EHAAn. Halaber, Kontseilu Aholku-emaileak Lanpostu Zerrenda (LZ) aldatzea onartu du, eta eraginpean dauden postuak ebaluatzeko balorazio-batzordea eratu da. Emaizak gutxi barru bidaliko dira. Enplegua finkatzeari dagokionez, zera azaldu da: 20/2021 Legearekin lotutako enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuak gorabeherarik gabe jarraitzen du aurrera, eta datozen asteetan ebaztea espero da. Halaber, deialdi arruntaren bidez hutsik dauden lanpostuak betetzeko deialdiaren berri ere eman da. Deialdi horren oinarriak prestatzen ari dira.

Azkenik, Euskadiko Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Legearen proiektuaren aurrerapena aurkeztu da. Lege-proiektu hori Eusko Jaurlaritzako Kontseiluak onartu zuen 2022ko abenduan, eta Eusko Legebiltzarrari igorri zitzaion. Legebiltzarreko izapideak azkar egin dira, eta hainbat aditu agertu dira otsailean eta martxoan. Zuzenketak aurkezteko epea amaitzean, legebiltzarreko taldeen zenbait proposamen erregistratu dira, eta Legebiltzarreko Mahaiak ekainean kalifikatu zituen. Espero da legebiltzarrean lege-proiektuaren prozesua 2023ko azken hiruhilekoan amaitzea.

- **Irailaren 12an, aparteko bileran,** gai garrantzitsu batzuk aztertu dira; hasteko, Kontseilu Aholku-emaileko kideak berritzea. Arabako Foru Aldundiaren ordezkaritza-epea amaitutakoan, orain Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio ordezkaria izendatzea; bada, Javier Bikandi Irazabal izendatu da kide berri eta Kontseilu Aholku-emaileko lehendakari, abenduaren 31ra arte. Halaber, jakinarazi da toki-entitateen ordezkaritza aldi baterako hutsik dagoela, EUDELe bere batzar nagusia egin behar duelako.

Aurreko bileraren akta onetsi da aho batez, oharrik egin gabe. Margarita Uriak erretiroa hartu ostean (karguan 2016az geroztik egon da) DBEBren Zuzendaritza berritzea ere aztertu da. Unai Aberasturi Gorriño, Margarita Uriaren ondorengoa, zuzendari izendatu da Eusko Legebiltzarraren batzordean agertu eta kargua EHAAn argitaratuz ofizializatu ostean. Gainera, zuzendari berriak 2023-2027 Plan



Estrategikoaren hasierako ildo estrategikoak aurkeztu ditu, eta urtea amaitu baino lehen plana osorik aurkezteko konpromisoa hartu du.

Azkenik, DBEBko behin-behineko langileen lanpostu zerrenda (LZ) aldatzea onartu da. Komunikazio-aholkulariaren lanpostua amortizatu ostean, modernizazio teknologikoko aholkulariaren lanpostu berria sortzea erabaki da. Kontseiluko kideek proposamenaren aldeko iritzia azaldu dute, profil berriaren monografia denen artean aztertu ondoren.

- **Abenduaren 15ean, ohiko bileran, hasteko, aurreko akta aho batez onartu da, oharrik gabe.** Jarraian, idazkaritza nagusiak 2024ko ekitaldirako aurrekontuak aurkeztu ditu. Aurrekontu horietan % 4,5eko igoera aurreikusten da, aurreko urtearekin alderatuta. Azaldu denez, igoera hori gertatuko da Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren (DBEB) beharrian operatiboak eta helburu estrategikoak betetzeko.

Geroago, Euskadiko Datuak Babesteko Legearen proiektua aztertu da, bereziki Kontseilu Aholku-emailearen egiturak eta eginkizunek jasango duten eraginari dagokionez. Nabarmendu da ordezkaritza paritarioa eta kualifikatua bermatu behar dela; gainera, aurreikusi da Kontseiluak txosten ez-lotesleak egitea legea interpretatzeko zirkularrei buruz eta garatzeko araudiari buruz. Azkenik, zuzendariak Plan Estrategikoaren aurrerapena aurkeztu du, bai eta abian dagoen Modernizazio Planarena ere, eta aurreikusita dauden jarduera-ildo nagusiak azpimarratu ditu.



3 AHOLKULARITZA-JARDUERA

Pandemiak sorrarazitako urtetako hutsunearen ostean, 2022an eta 2023an azkenik botere publikoen jarduerara normaltasuna itzuli da; horren ondorioz, areagotu egin da Agentziak prestakuntza, aholku eta kontrol eginkizunetan egin beharreko esku-hartzea ere.

Agentziaren aholkularitza-jarduerari dagokionez, nabarmentzekoa da gora egin duela Agentziak arau-proiektuei buruz egindako legezkotasun-txostenen kopuruak, legegintzako eta araugintzako jarduerak ere gora egin duelako.

Legegintza-arloan, lehenengoz nabarmendu behar da Eusko Legebiltzarrean abenduaren 21eko 16/2023 Legea, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzarena onartu dela.

Datuak Babesteko Europako Erregelamendua zuzenean aplikatzekoa da. Gainera, bere garaian, abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa eta maiatzaren 26ko 7/2021 Lege Organikoa, arau-hauste penalak prebenitu, detektatu, ikertu eta epaitzeko eta zehapen penalak betearazteko tratatutako datu pertsonalak babesteari buruzkoa onartu ziren. Horrek guztiak berebiziko eragina izan du jabetza publikoko fitxategiei eta DBEB sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean.

Autonomia-erkidegoko lege berriak 2/2004 Legea indargabetzen du, datuen babesaren arloko araugintza-esparru berrira egokitzeko, eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren araubidea erregulatzen du, esparru horrek instituzio berme-emaileei ematen dizkien eginkizun eta ahal zabalekin bat etorriz. Gainera, legearen eraginez, Agentziaren jarduera-eremu subjektiboa askoz zabalagoa da, besteak beste euskal sektore publiko osora hedatzen baita.

Bigarrenez, nabarmentzekoa da DPBEDBLO ere aldatu egin dela maiatzaren 8ko 11/2023 Legearen, Europar Batasuneko zuzentarauen transposizioari buruzkoaren bidez.

DPBEDBLOren aldaketa horren bitartez, ohartarazpenak zehapen izateari utzi dio, eta neurri ez-zehatzaile gisa ezartzen da kontrol-agintaritzen botere zuzentzaileen barruan.

Beste ikuspuntu batetik, 2023. urtearen bereizgarria teknologiaren aurrerabidea izan da; zehazki, adimen artifiziala bat-batean eztabaida sozialean agertzea. Teknologia horren eraginak esparru akademikoaz edo kontrol-agintaritzen esparruaz harago joan dira, eta pertsonen solasaldien eta eguneroko jardueren erdigunean kokatu dira.

Hala ere, zuzenbideak oraindik ere ez die konponbide osoa eman, inondik ere, adimen artifiziala eguneroko bizimoduan ezartzearen ondorioz agertzen hasi diren arazoei. Gauzak horrela, kontrol-agintaritzen zeregin pedagogikoa eta zabalkunde-zeregina lagungarria izan daiteke gai horren konplexutasunak sorrarazi dituen hutsarteak betetzeko. Hori hainbestearino da horrela, non, European adimen artifizialaren arloko araudiaren legegintza-prozesua oraindik izapidetzen ari dela, hainbat lantalde sortu baitira azkenaldian agertu diren edo etorkizun hurbilean agertuko diren beste tratamendu konplexu batzuk aztertzeko; halakoak dira



neurozientziatik sortutako tratamenduak, edo informazio pertsonala monetizatzeke joera gero eta nabariagoa (worldcoin).

Zalantzarik gabe, auzi horiek guztiak garrantzi handikoak dira baina herritarrek, aldi berean, beste kezka batzuk dituzte, eta horiek Agentzian jasotzen diren erreklamazioetan azaltzen dira. Hala, Agentzian 2023an izapidetutako prozedurak aztertuz, zenbait ondorio atera ditzakegu.

Lehenik eta behin, azpimarratu behar dugu oraindik ere herritarrek oso maiz bi eskubide nahasten dituztela, alde batetik DBEOn araututako irispide-eskubidea eta, bestetik, 39/2015 Legetik sortzen den eskubide bat, espediente eskueran izatekoa, edo informazio publikoa eskuratzeko eskubidea, abenduaren 9ko 19/2013 Legean arautzen dena.

Jasotako erreklamazio edo kontsulta askotan ere ikusten denez, jendeak ez daki zein diferentzia dagoen ohorerako, intimitaterako eta bakoitzaren irudirako eskubidearen eta datuak babesteko eskubidearen artean, araubide juridikoari dagokionez.

Izapidetutako arau-hauste prozeduretan, sarritan agertzen dira osotasun eta konfidentzialtasunaren printzipioaren urraketak, gehiagotan hutsegiteen edo ezjakintasunaren ondorioz, nahita egindako arinkeriaren ondorioz baino.

Historia klinikoan kudeaketatik, datu biometrikoen atzipenetik edo kameran instalaziotik datozen datu-tratamenduek oraindik ere garrantzi handia dute Agentziak aztertzen dituen erreklamazioen artean.

Azkenik, tratamenduaren arduradunek Agentziaren irizpidea jakin nahi izaten dute batez ere askotariko ondasun juridikoen artean (sindikatu-askatasuna, adierazpen eta informazio askatasuna, partaidetza politikorako eskubidea eta beste hainbat) talka gertatzen den edo gertatu ahal den esparruetan.

3.1 TELEFONO BIDEZKO ARRETA, ZUZENeko ARRETA ETA ARRETA TELEMATIKOA

Agentziak bere gain hartu duen konpromisoa da instituzio hurbila eta irisgarria izatea, bai pertsonentzat bai bere jarduera-eremuaren barruan dauden administrazio publiko eta entitateentzat. Horregatik, Agentziak hainbat komunikazio-kanal dauzka, pertsonak edo instituzioek orientabide juridikoa edo irizpide teknologikoa eskatu nahi badute, edo erreklamazioak aurkezteari buruzko informazioa eskatu nahi badute.

2023. urtean Agentziak bere komunikazio-kanal guztiak irekita eduki ditu eta aholkularitza-eskabide ugari artatu ditu, funtsean telefono bidez eta bide telematikoak erabiliz.

2023an, administrazioentzat eta herritarrentzat kezka-iturri izan dira hezkuntzako zerbitzu publikoarekin, bideozaintzarekin -poliziak zein bestek egin beharreko bideozaintza- eta irispidea izateko eta ezerezteko eskubideekin zerikusia duten datu-tratamenduek sorrarazitako auziak.




3.2 KONTSULTAK

Agentziak irizpen bidez ebazten ditu datuen babesari buruz jasotzen dituen galderarik konplexuenak. Agentziak aholkularitza eginkizuna burutzen du abenduaren 21eko 16/2023 Legearen 6. artikulua betetze aldera, eta administrazioei eta pertsona fisiko zein juridikoei eskaintzen die, baina:

- kontsultaren gaiak Agentziaren legearen aplikazio-eremuan dauden administrazio publiko eta entitateen ardurapeco datu pertsonalen tratamenduari buruzkoa izan behar du.
- planteatutako gaiak zehatza izan behar du, eta horrek esan nahi du gutxienez zalantzaren iturburu den tratamenduaren deskribapena egin beharko dela, eta Agentziak irizpidea behar bezala eman ahal izateko behar duen informazioa aurkeztu beharko dela.

2023. urtean, aurreko ekitaldietan bezala, udalek eta foru-aldundiek egin dituzte kontsulta gehienak, eta haien atzetik EAEko Administrazio Orokorrak.

Jasotako kontsulten artean nabarmentzekoak dira bideoaren bidez egindako irudi-tratamenduak, hautaketa-prozeduren edo norgehiagokako prozeduren kudeaketatik sortutako datu-tratamenduak eta informazioa kontserbatzeko eginbeharrari buruzko kontsultak. Gainera, lehenago esan denez, datuak babesteko oinarritzko eskubideak beste eskubide batzuekin talka egiten duen kasuek oraindik ere eragozpenak sorrarazten dituzte administrazio publikoetan, kasu horiek aztertzerakoan.



3.3 IRIZPENAK

Irizpen adierazgarrienak eskuragarri daude Agentziaren web-orrian (www.avpd.eus).

- **Udal aldizkari batean iritzi-artikuluak zabaltzea (CN23-001)**

Datuak Babesteko Euskal Bulegoari galdetu zaio ea talde politiko batek udal aldizkariako iritzi atalean argitaratzeko prestatu dituen artikuluek datuak babesteko araudia urratzen duten ala ez.

Kasu honetan, gatazkaren xede izan daitezkeen ondasun juridikoak adierazpen- eta informazio-askatasunerako eskubidea (Espainiako Konstituzioaren 20. artikulua) eta ohorerako eskubidea (Espainiako Konstituzioaren 18.1 artikulua) dira, eta azken eskubide horretan bidegabeki esku sartzearen aurka babesa ematea ez dagokio Agentzia honi, baizik eta auzitegiei.



- **Gizarte-zerbitzuek izapidetutako espediente bat zinegotzi bati lagatzea (CN23-006)**

Udal batek egiten duen kontsultaren gaia da gizarte-larrialdietarako laguntza bat emateko izapidetutako espediente bateko datuak zinegotzi bati komunikatzea, kontuan hartuta espediente horretan datu-kategoria berezien barruko informazioa edo eskatzailearen zaurgarritasun-egoerari buruzko informazioa ager daitekeela: osasunari buruzko datuak, egoera ekonomikoa, familia-harremanak eta abar.

Kontsultaren xedea da oinarritzko bi eskubideren arteko tira-bira ebaztea: Konstituzioaren 23. artikulua arautzen duen parte-hartze politikorako eskubidea eta 18.4 artikuluan onartzen dena, datu pertsonalak babesteko eskubidea, alegia. Irizpenaren ondorioa honako hau da: dagoen jurisprudentziari erreparatuta, uler daiteke parte-hartze politikorako eskubidea funtsezko interes publikoa dela, eta horrek legitimatzen duela kontsultaren xede den tratamendua, datu-kategoria bereziak tartean egon arren.

Hala ere, minimizazioaren printzipioa aplikatuta, lortu nahi den helbururako behar-beharrezkoak diren datuak tratatu beharko dira, ez gehiago, eta pribatutasunean inbasio txikiena dakarten bideak hautatu beharko dira, posible bada, adibidez informazio disoziatua edo gizarte-langileen txostenak.

3.4 TXOSTENAK

2023. urtean hamabi legezkotasun-txosten egin dira:

- Euskadiko Gardentasun Legearen aurreproiektua.
- Batxilergoaren curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzeko dekretu-proiektua.
- Oinarritzko Hezkuntzaren curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzeko dekretu-proiektua.
- Haur Hezkuntzaren curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzeko dekretu-proiektua.
- EAEn desgaitasuna duten pertsonen enplegarritasunarekin loturiko programak eta zerbitzuak eta Enplegu Zentro Berezien Euskal Erregistroa arautzen dituen dekretu-proiektua.
- EAEren eremuan urriaren 5eko 15/2018 Errege Lege Dekretuak sortutako gizarte-bonu termikoaren kudeaketa, ebazpena eta ordainketa arautzen dituen dekretu-proiektua.
- EAEko Administrazio Orokorraren eta haren Administrazio instituzionalaren ahalordeen erregistro elektronikoa arautzen duen agindu-proiektua.
- Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren eremuan informaziorako eta salatzaileen babeserako barneko sistema arautzen duen dekretu-proiektua.
- Diru-sarrerak bermatzeko errentaren erregelamendua onartzen duen dekretu-proiektua.



- Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko dekretu-proiektua.
- Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen arloko hainbat dekretu aldatzen dituen dekretu-proiektua.
- Gobernu Kontseiluaren erabaki-proposamena, EAEko sektore publikoko datuen gobernantzaren estrategia onartzen eta hura zati batean betearazteko agintzen duena.
- Dekretu-proiektua, zeinaren bidez arautzen baita zer prozedurari jarraituko zaion EAEren eremuan araubide bereziko kirol-ikasketak emango dituzten ikastetxe pribatuak baimentzeko.
- EAEko Administrazioaren eta Udalen arteko lankidetzak-hitzarmena, NIK Patrika Digitala aplikazioa erabiltzeko.
- Berdintasun Ministerioaren eta EAEko Administrazio Orokorren arteko lankidetzak-hitzarmena (LGTBIfobia telefono-zerbitzua).

3.5 BATZARRAK

Jarraian azalduko dugu Datuak Babesteko Euskal Bulegoak 2023. urtean zein batzarretan hartu duen parte, besteak beste.

- Batzarra Biscaytik Fundazioarekin, Getxon, urteroko jardunaldia egiteko.
- Batzarra Vitoria-Gasteizko Udalarekin, Udaltzaingoaren datuen tratamenduei buruz.
- Batzarra Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuarekin, ente publiko horri buruzko espedienteen arazoak azaltzeko.
- Datuak Babesteko Kontrol Agintaritzen sei hilean behingo batzarra, Bartzelonan. Batzar horretan zenbait gai jorratu dira, adibidez segurtasun-arrakalen kudeaketa, cookieak, datuen eremuak, ChatGPT, ohartarazpena eta 2/2023 Legearen, arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesarazteko eta ustelkeriaren aurka borrokatzearen azterketa.
- Batzarra Datuak Babesteko Espainiako Agentziarekin, Madrilan.
- Batzarra Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearekin, ikastaroak emateko.
- Datuak babesteko kontrol agintaritzen batzarra, Wifi Trackingari buruzko gida prestatzeko.
- Batzarra Segurtasun Sailarekin, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren Legearen aurreproiektua prestatzeko buruz.
- Batzarra Eusko Legebiltzarreko letratuarekin, datuen babesari eta legebiltzarren jarduerari buruzko lan bat argitaratzeko buruz.
- Batzarra Gardentasunaren eta Datu Babesaren Andaluziako Kontseiluarekin, hezkuntza-plataformen arazoa aztertzeko.





- Batzarra Datuak Babesteko Kataluniako Agentziarekin, hezkuntza-plataformen arazoa aztertzeko.
- Batzarra Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiarekin, Bruselan.
- Batzarra Cyberzaintzarekin, Euskadiko Zibersegurtasun Agentziarekin.



4 KONTROL-JARDUERA

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak, jarduera hori bere kabuz edo erreklamazioak jaso ostean egiten duenean, Euskadiko administrazio publikoek beren eguneroko zereginetan oinarrizko eskubidea betetzen dutela kontrolatzen du eta, hala badagokio, ahal zuzentzaileak egikaritzen ditu.

Gainera, erreklamazioak ebazten ditu, lehenago tratamenduaren arduradunen aurrean eskubideak egikaritzearekin zerikusia badute. Hain zuzen ere, hala egiten du erreklamatzailen ustez eskubide horiek bete ez direnean edo behar bezala bete ez direnean.

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrak eginkizun asko eta ahal zabalak esleitzen dizkie kontrol-Agentzia guztiei, adibidez, ikerketa-ahalak eta ahal zuzentzaileak; horretarako, arau-hausteak eta ezar daitezkeen zehapenak edo jarduera zuzentzaileak arautzen ditu.

Erregelamenduak askatasuna ematen die estatuei, zehaztu dezaten administrazio publikoei zehapen ekonomikoak ezarri behar dizkieten ala ez. Horren haritik, DPBEDBLOk, lehenengo abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak bezalaxe, izaera juridiko publikoa duten tratamendu-arduradunei zehapen ekonomikorik ez jartzearen alde egiten du. Arduradun horiek, datuen babesaren arloko arau-hauste bat gertatzen denean, jokabide hori eteteko edo arau-haustearen ondorioak zuzentzeko hartu beharreko neurriak ezarriko dituzte. Bestalde, datuak babesteko Agentziak diziplinako jarduketak abiarazi ahal dituela aurreikusten da, horretarako adina zantzu egonez gero.

Baina horrez gain —eta duela gutxi onartu den abenduaren 21eko 16/2023 Legeak, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzarenak dakarren alderdi berria da hau—, arau-hausteak agintariei eta zuzendariei egoztekoak badira, eta egiaztatzen bada badela tratamenduari begira egindako txosten tekniko edo gomendiorik eta halakoei ez zaiela behar bezala jaramon egin, kargudun arduradunaren izena daraman ohartarazpena egingo da, eta Euskal Herriko Agentziaren Aldizkarian argitaratuko da.

Erreklamazioa jaso duten Administrazioek laguntza egokia eman dute, orokorrean; hala ere, batzuetan, Agentziak behin eta berriz eskatu behar izan du informazioa, baita ohartarazi ere ezen, Datuak Babesteko Agentziari ez laguntzea jokabide zehagarria dela, DBEOren eta 3/2018 Lege Organikoaren arabera.

Alde horretatik, aipamen negatiboa egin behar da Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari buruz, behin eta berriz muzin egin baitie Datuak Babesteko Euskal Bulegoak askotan egin dizkion informazio-eskariei. Hori dela eta, Agentziak prozedurak ebatzi behar izan ditu tratamendu-arduradun horren informaziorik jaso gabe eta, horrez gain, deklaratu behar izan du Osakidetza hainbat aldiz urratu duela kontrol-Agentziari laguntzeko eginbeharra.

Jokabide horrek irauten badu, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak ezinbestean ohartarazpen bat argitaratu beharko du Euskal Herriko Agentziaren Aldizkarian, 16/2023 Legearen, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzarenaren 28.5 artikuluan xedatuta dagoenaren arabera.



4.1 ESKUBIDEEN BABESA

2023an, Datuak Babesteko Euskal Bulegoan aurkeztutako babes-erreklamazioetako asko baietsi egin dira, arduradunek berandu bete dituztelako erreklamatzailerik egikaritutako eskubideak. Batzuetan, eskubidea bete da tratamenduaren arduradunak jakin duenean Agentziak erreklamazio bat jaso duela. Alde horretatik, berriro ere esan behar da eskubidea epez kanpo betetzea oinarritzko eskubidea urratzea dela. Bestalde, ez da ahaztu behar irispide-eskubideak, ezerezteko eskubideak eta gainerakoek eskubidearen funtsezko edukia osatzen dutela, beraietan argi eta garbi agerian geratzen baita informazio pertsonala eskueran izateko ahalmena.

Herriarrek egikaritu dituzten eskubide-motei dagokienez, aurreko urteetako joera areagotu da, hau da, nagusi izan dira datuetara irispidea izateko eta datuak ezerezteko eskariak, eta historia klinikoari eta polizia-fitxategietan agertzen diren datuei lotutako eskariak berriro ere. Historia klinikoetan sartutako datuen pribatutasunari buruz pertsonen duten kezka, ikusi denez, handiagoa da urterik urte. Datu horien tratamendua adostasunik gabe egiteak zaurgarritasun egoera nabaria sortzen du pertsonengan, eta litekeena da arrazoi horregatik egitea irispidea izateko eskari asko. Polizia-arloko datuei dagokienez, ikusi da kezka dagoela halako informazioek kontserbazio-epe legitimoaz harago irauteagatik, horrek ondorio kaltegarriak ekartzen dituelako.

Baiespenen kopuruari dagokienez, esan dezakegu aurkeztutako eta onartutako babes-erreklamazioen % 71 baino gehiago baietsi direla eta, horien artean, ia-ia % 40 Osakidetza-EOZi buruzkoak direla.

Hona hemen 2023an ebatzitako babes-eskariak.

4.1.1 Iripide-eskubidea

- **Osakidetza-EOZen dagoen historia kliniko batera irispidea izatea (ET22-016)**

Pertsona batek Agentziari eskatu dio bere historia klinikora izandako irispideen erregistroa, eta babes-erreklamazioa ez da onartu, eskatzaileak lehendabizi ez zuelako egikaritu irispide-eskubidea tratamenduaren arduradunaren aurrean, DBLOren 18.2 artikulua zehazten duenaren arabera. Hala ere, ebazpenean adierazten da aukera duela Osakidetza-EOZi berriro eskatzeko nahi duen epealdian bere historia klinikora izandako irispideak eta, eskari hori behar bezala bete ezean, orduan babes-erreklamazioa aurkeztu ahalko duela Datuak Babesteko Euskal Bulegoan.

Berraztertze errekurtsoa aurkeztu da eta ezetsi da; horrenbestez, ebazpena berretsi da, zuzenbidearekin bat datorrelako.

- **Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernantza Departamentuaren esku dauden datu pertsonaletara irispidea izatea (ET22-022)**



Erreklamatzailleak bere datu pertsonaletara irispidea izateko eskatu du, baina Gipuzkoako Foru Aldundiak ez du erantzun araudian ezarrita dagoen epean, baizik eta Agentziak babes-prozedura hasi ondoren.

Beraz, azkenean irispidea izan arren, eskubidea ez dute bete DBEOren 12.3 artikuluan ezarrita dagoen hilabeteko epean; horrenbestez, erreklamazioa baietsi da.

- **Osakidetza-EOZen dagoen historia kliniko batera irispidea izatea (ET22-023)**

Pertsona batek bere historia klinikora eta bere seme adingabearen historia klinikora izandako irispideen erregistroa eskatu du.

Erreklamatzaillearen seme adingabeari dagokionez, aurkeztutako erreklamazioa baietsi da, irispide-eskubidea garaiz kanpo bete delako; gainera, Osakidetza-EOZi eskatu zaio aurrerantzean Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 12. artikuluan ezarritako baldintzak bete ditzala.

Erreklamatzailari dagokionez, historia klinikora izandako irispideen erregistroari buruz aurkeztutako erreklamazioa baietsi da eta Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari eskatu zaio erreklamatzailari igor diezaiola eskatutako datetan haren historia klinikora izandako irispideen erregistroa, ebazpena jakinarazi eta hurrengo hamar egun balioduneko epean. Osakidetzari azaldu zaio baiespen-ebazpenaren ondorioz egiten diren jarduketak Agentziari komunikatu behar zaizkiola epe berean. Gainera, ohartarazi da Agentziaren ebazpena ez betetzea balitekeela DPBEBLOren 72.1m) artikuluan aipatzen den arau-haustea izatea.

Osakidetzak aipatu baiespen-ebazpena ez du bete; beraz, PI23-018 zenbakiko arau-hauste prozedura ireki da.

- **Osakidetza-EOZen dagoen historia kliniko batera irispidea izatea (ET23-003)**

Pertsona batek bere historia klinikora irispidea izan dutenen erregistroa eskatu du, eta Osakidetza-EOZek ukatu egin dio irispidea izatea, ulertzen duelako 2021. urtean erregistro hori eman ziola eta erreklamazioa funsgabea edo neurrigabea dela. Aurkeztutako erreklamazioa baietsi da, tratamenduaren arduradunak ez duelako frogatu erreklamatzailleak aurkeztutako irispide-eskaera argi eta garbi funsgabea edo neurrigabea denik, azken bidalketa egin zenetik bi urte igaro direlako.

Osakidetzak Agentziari ez dizkio jakinarazi hartutako neurriak.

- **Osakidetza-EOZen dagoen historia kliniko batera irispidea izatea (ET23-006)**

Pertsona batek bere historia klinikora irispidea izatea eskatu du. Prozedura izapidetu bitartean, erreklamatzailleak erreklamazioari uko egin dio. Ukoa onartu da urriaren 1eko 39/2015 Legearen, Administrazio Prozedura Erkidearenaren 94. artikuluen arabera, kontuan hartuta eskubide guztiz pertsonala dela, 94. artikuluan formalismorik ezaren printzipioa agertzen dela, eta prozedura hartan ukitutako hirugarrenik agertu ez zela.





- **Hilda dagoen aitaren historia klinikora irispidea izatea (ET23-008)**

Pertsona batek hilda dagoen bere aitaren historia klinikoko dokumentazioa eskatu du eta Osakidetza eskaria ukatu du. Osakidetza alegaziorik aurkeztu ez duenez uko horri oinarria emateko, Euskal Osasun Zerbitzuari errekerimendua egin zaio, irispidea izateko eskaria bete dezan.

- **Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak irispide-eskubidea ukatzea (ET23-009)**

Erreklamatzailerak Agentziara jo du, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak irispide-eskubidea ukatu diolako. Erreklamatzailerak Lanbiden tratatzen ari diren bere datu pertsonalei buruzko informazioa eskatu du. Zehazki, Lanbideri tratamenduaren eragile gisa zerbitzuak ematen dizkion enpresako langile batzuek bere datuetara irispidea izan zutenez, horren berri izatea eskatu du.

Aurkeztutako erreklamazioa baietsi da eta onartu da erreklamatzailerak eskubidea duela jakiteko tratamenduaren eragile den enpresak zenbat aldiz, nola eta zein edukirekin izan duen irispidea. Aurkeztutako erreklamazioa ezetsi da, bestalde, datuetara irispidea izan duten pertsonen identifikazioa eskatzeari dagokionez, informazio hori ezin delako eman irispide-eskubidea egikaritzuz.

Lanbidek Agentziari komunikatu dio zer neurri hartu duen Agentziaren ebazpena betetzeko. Erreklamatzailerak, berriz, ebazpen horren aurka berraztertzeke errekurtsioa aurkeztu du, baina ezetsi da.

- **Vitoria-Gasteizko Udalean dauden zenbait datutara irispidea izatea (ET23-011)**

Erreklamatzailerak aurkeztutako babes-eskaria baietsi da, irispidea izateko eskubidea lege ezarritako epetik kanpo artatu delako. Gainera, Udalari errekerimendua egin zaio, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrek pertsonen onartzen dizkien eskubideak egikaritzea bermatzeko beharrezkoak diren neurriak har ditzan.

- **Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoaren informaziora irispidea izatea (ET23-012)**

Agentziaren babesa eskatu da, Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoaren aurrean egikaritutako irispide-eskubidea ez dutelako bete. Erakundeak onartu du informazioa ez zela eman araudiak ezarritako epean eta, horrenbestez, nahiz eta interesdunak azkenik eskatutako informazioa jaso, irispide-eskubidea ez dela bete DBEOren 12.3 artikuluan ezarritako hilabeteko epean.

Ondorioz, Arabako Foru Suhiltzaileak erakundearen aurka aurkeztutako erreklamazioa baietsi da eta eskatu zaio aurrerantzean DBEOk ezartzen duen hilabeteko epea bete dezala.



- **Irispidea izateko eta zuzentzeko eskubideak urratzea (ET23-015)**

Erreklamatzailleak Agentziaren babesa eskatu du, Bizkaiko Garraio Partzuergoaren aurrean egikaritutako zuzentzeko eskubidea eta Metro Bilbao SAri eskatutako irispide-eskubidea ukatu dizkiotelako.

Zuzentzeko eskubidea ukatzeagatik aurkeztutako babes-erreklamazioa ez da onartu, ez delako egiaztatu aurretiaz tratamenduaren arduradunari datuak zuzentzeko eskatu zaionik. Irispide-eskubidea ukatzeagatik aurkeztutako babes-erreklamazioa, berriz, ez da onartu eskumenik ez edukitzeagatik; izan ere, auzi hori Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren aplikazio-eremuaren barruan dago, eta horregatik hari helarazi zaio erreklamazioa.

Erreklamatzailleak berraztertzeko errekurtoa aurkeztu du baina ezetsi egin da, ebazpena zuzenbidearekin bat datorrela ulertzeagatik.

4.1.2 Ezerezteko eskubidea

- **Aldizkari ofizial batean dauden datu pertsonalak ezereztea (ET22-020)**

Erreklamazioa baietsi da, Arabako Foru Aldundiak epez kanpo bete duelako (eskabidea garaiz izapidetu ez zela onartu du) erreklamatzaillearen ezerezteko eskubidea. Azkenean Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean erreklamatzaillearen datu pertsonalak agertzen diren iragarkia desindexatu da, baina eskubidea ez da bete DBEOren 12.3 artikuluan ezarrita dagoen hilabeteko gehieneko epearen barruan.

- **Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuan datu pertsonalak ezereztea (ET23-001)**

Aldundiak datuak ezereztu ditu eskatu bezala, baina eskubide hori babesteko Agentzian aurkeztutako erreklamazioaren berri izan ostean. Beraz, azkenean eskatu bezala datuak ezereztu arren, eskubidea ez dute bete DBEOren 12.3 artikuluan ezarrita dagoen hilabeteko gehieneko epean; beraz, erreklamazioa baietsi da.

- **Erandioko Udalaren esku dauden datu pertsonalak irispidean izatea eta ezereztea (ET23-002)**

Erreklamatzailleak Udaltzaingoa dauden datuak ezerezteko eta datuetara irispidea izateko eskubidea egikaritu du Erandioko Udalaren aurrean. Ezerezteko eskubideari dagokion erreklamazioa ezetsi da, Udalak dioenez erreklamatzaileri buruzko trafiko-zehapen batzuk daudelako, baita haren aurka irekitako diziplina-espediente bat ere, eskatutako informazioarekin lotuta; beraz, datuak kontserbatu behar dira.

Beste alde batetik, irispide-eskubideari buruzko erreklamazioa ez da onartu, administrazio-prozedura batean bildutako dokumentuetara irispidea izateko eskubidea egikaritu nahi delako; bada, eskubide hori 39/2015 Legearen 53.1





artikuluaren arautzen da, eta ez da datuen babesari buruzko araudian erregulatzen den irispide-eskubidea.

Eskatzaileak berraztertzeako errekurtsioa aurkeztu du ebazpenaren aurka; alegatu duenez, trafiko-arloan ezarritako zehapenak ordaindu ditu jada, eta Erandioko Udalak ezin du bere aurka diziplina-espedienterik ireki, bera ez dagoelako Udaleko plantillaren barruan. Bestalde, Erandioko Udalak, errekurtsioaren aurka aurkeztutako alegazioetan, onartu du isunak ordainduta daudela eta, datu pertsonalak ezabatuz gero beste administrazio batek hasitako ustezko diziplina-espediente baten bilakabideari kalte egingo litzaiokeela esan arren, ez du frogarik aurkeztu halako espedienterik dagoela erakusteko.

Beraz, aurkeztutako errekurtsioa baietsi da eta Erandioko Udalari agindu zaio eskatu bezala datuak ezerez ditzala.

- **EHAAn argitaratutako datu bat ezereztea (ET23-004)**

Erreklamatzailerak babes-eskaria aurkeztu du, ezerezteko eskubidea ukatzeagatik. Aurkeztutako erreklamazioa ez da onartu: izapidetzeko oinarritzako baldintzak falta zaizkio, erreklamatzailerak ez duelako egiaztatu aurretiaz Euskal Herriko Agentziaren Aldizkariaren aurrean ezerezteko eskubidea egikaritu duenik.

- **Datuak ezereztea (ET23-005)**

Alderdi erreklamatzailerak aurkeztutako erreklamazioa ezetsi da: erreklamaturako administrazioak epe barruan bete du eskatutako ezerezteko eskubidea, tratamenduaren arduradun gisa aurreikusitako neurri tekniko eta antolakuntzako bidez datu pertsonalak blokeatzea erabaki zuelako preskripzio-epea igaro arte. Epe hori igarotakoan, kontserbatu behar ez diren dokumentuak suntsituko dira, eta kontserbatzen diren euskarrietan datuak anonimizatuko dira, xedatuta dagoenaren arabera.

Kontuan hartu behar da datuak anonimizatzearen ondorioz pertsona jada ez dela identifikagarria izango eta, beraz, ez zaizkiola aplikatzen datuen babesari buruzko printzipioak (DBEOren 26. kontuan hartuzkoa).

- **Ezerezteko eskubidea urratzea (ET23-010)**

Getxoko Udalaren osoko bilkuraren bileren aktetan -web orrian argitaratutako horietan- bildutako datu pertsonalak ezerezteko egindako eskariari Udalak ez dio erantzunik eman eta, horregatik, erreklamazioa jarri da. Udal horrek onartu duenez, eskariari ez zaio erantzun, baina betetzea onartu du, eta hala jakinarazi dio erreklamatzailari. Horrenbestez, aurkeztutako erreklamazioa baietsi da.

- **Historia klinikoko dokumentuak ezereztea (ET23-017)**



Erreklamatzailleak eskatu du bere historia klinikotik ezaba daitezela 2023an izandako gertakari bati buruzko bi dokumentu. Aurkeztutako erreklamazioa ez da onartu, legean ezarritako 5 urteko kontserbazio-epea ez delako igaro.

Kontuan hartu behar da gauza bat: DBEOren 17. artikuluan jasotako eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzekoaren (DDPBEDBLO) 15. artikuluan aipatutako ezerezteko eskubidea egikaritzen duen horrek ezin du pentsatu datuak ezabatuko direnik besterik gabe berak eskatuta. Hori hala da arau espezifiko batzuek behartuta informazio jakin bat epe zehatz batzuetan kontserbatu behar delako.

Hala, azaroaren 14ko 41/2002 Legearen, pazientearen autonomiari eta informazio eta dokumentazio klinikoaren arloko eskubide eta betebeharrei buruzkoaren 17.1 artikuluan xedatzen denez, osasun-zentroek nahitaez gorde beharko dute dokumentazio klinikoa, hura modu egokian mantendu eta segurtasuna bermatzeko baldintzetan, kasu bakoitzari dagokion denboran zehar; dokumentazioa bost urtez gorde beharko da gutxienez, prozesu asistentzial bakoitzari alta ematen zaion egunetik kontatzen hasita. Gainera, Osasun-arloko Paziente eta Profesionalek Dokumentazio Klinikoaren arloan dituzten Eskubide eta Obligazioei buruzko martxoaren 13ko 38/2012 Dekretuak ere antzekoa dio. (EHAA, 2012ko martxoaren 29koa).

4.1.3 Zuzentzeko eskubidea

- **Historia klinikoa zuzentzeko eskubidea urratzea (ET22-018)**

Ezetsi da historia klinikoa zuzentzeko eskubidea urratzeagatik aurkeztutako erreklamazioa, ez delako ikusi datuak zehaztugabeak direnik. Gainera, ikuspuntu medikotik datu esanguratsuak dira.

4.2 SALAKETAK

Pertsona fisikoek edo juridikoek aurkeztutako erreklamazioak dira, euskal administrazio edo instituzio publikoek datu pertsonalen babesaren arloko araudia urratuz egiten dituzten jarduerak direla-eta, jarduera horiek arau-hausteak izan daitezkeelakoan.

Onartutako salaketak arau-hauste prozedura bihurtu dira edo artxibatu egin dira, ez dagoelako prozedura hori hasteko nahikoa arrazoirik.

4.2.1 Onartu gabeko salaketak

2023an salaketa ugari ezetsi ditugu, pertsona fisikoei buruzkoak eta izaera juridiko pribatuko entitateei buruzkoak izateagatik, eta halakoak Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren kontroletik kanpo egoteagatik. Halakoak Datuak Babesteko Espainiako Agentziara bidali ditugu (DN23-004, DN23-005, DN23-008, DN23-015, DN23-020, DN23-026, DN23-032, DN23-039, DN23-045, DN23-046, DN23-047, DN23-049, DN23-052, DN23-06).





Jasotako eta izapidetzeko onartutako salaketen % 55 baino gehiagoan, Euskadiko administrazio publikoek datuen babeserako araudia urratu dela deklaratu den prozedurak bideratu dira azkenean.

4.2.2 Artxibatutako salaketak

- **Seme-alaben gizarte-txostena (DN22-055)**

Erreklamatzailleak salaketa aurkeztu du Agentzian. Lehenago Etxebarriko Udalera jo zuen, bere alabaren gizarte-txostenaren kopia bat eskatzeko eta bere datu pertsonalak eta bere alabarenak (gizarte-historian dauden datuak) entitate bati komunikatzearen aurka egiteko.

Irispide-eskubidea egikaritzeari buruzko ebazpena ematea, berriz, ez dagokio Agentziari, baizik eta Etxebarriko Udalari berari —gizarte-historiaren kopia ukatu dio, hirugarren pertsonen datu pertsonalak daudelako, adingabearen interes gorena kontuan hartuta—, baina ukatzea aurkaratu ahal da administrazio-bidean nahiz auzi-jurisdikzioan. Erreklamatzailleak ez du egikaritu Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 15. artikuluan azaltzen den irispide-eskubidea, baizik eta artxibo eta erregistroetara sartzeko eskubidea.

Aurka egiteko eskubideari dagokionez, zera ondorioztatu ahal da: Etxebarriko Udaleko gizarte-zerbitzuek erreklamatzaillearen eta haren alabaren datu pertsonalen tratamendua egin dute —barnean direla gizarte-zerbitzuen sistemako beste entitate batzuei egindako komunikazioak—, DBEOren 6.e) artikuluan xedatzen denez, botere publikoak egikaritzeko, bai eta haurren eta nerabeen babeserako legeriatik sortzen diren legezko eginbeharrak betetzeko. Beraz, ez da urratzen datu pertsonalak babesteko araudia, eta ez da egiaztatu erreklamatzaillearen inguruabar pertsonalik dagoen tratamenduaren aurka egitea legitimatzeko.

- **Historia klinikora bidegabeki irispidea izatea (DN22-060)**

Osakidetza-EOZen aurkako salaketa aurkeztu da, enteko profesional batek historia klinikora bidegabeki izan duelako irispidea. Profesional hori izenarekin eta abizenekin identifikatu da.

Izapidetutako prozeduran egiaztatuta geratu da, erreklamatzaillearen historia klinikora irispidea izan dutenen zerrenda osoa aztertuta, Euskal Osasun Zerbitzuko profesional identifikatuak ez zuela inoiz ere irispidea izan erreklamatzaillearen historia klinikora.

Beraz, espedientea artxibatzea ebatzi da.

- **BFAko Gizarte Ekintza Saileko datuak Osakidetza-EOZi komunikatzea (DN22-070)**



Salaketa aztertutakoan, zera egiaztatu da: lege-gaikuntza nahikoa dago Foru Aldundiak Osakidetzari datuak komunikatzeko, eskumena baitauka mendekotasunaren arretarako gizarte-zerbitzuak kudeatzeko; dena dela, datuak komunikatzean minimizazioaren printzipioa bete behar du, beste printzipio batzuen artean.

- **Udalaren jakinarazpena, hirugarren baten datuekin (DN23-001)**

Erreklamatzailleak azaldu duenez, Bilboko Udalak salaketa-jakinarazpen bat bidali dio botiloia egiteagatik. Jakinarazpen horretan gertatutako egitateak azaltzen dira eta, gainera, botiloia egiteagatik salatutako beste pertsona batzuen zerrenda ageri da, haien izen-abizenekin eta NAN zenbakiekin.

Administrazioak erreklamatzailleari ezagutarazi dio arau-hauste administratibo bat izan daitezkeen egitate batzuetan parte hartu duten pertsona guztien identitatea (baita erreklamatzaillearena ere), egitate horietan ezinbestean pertsona batek baino gehiagok parte hartzen dutelako.

Udalak jokabide arau-hausle berberarengatik salatutako pertsona guztien identitatea erreklamatzailleari ezagutaraztea, Agentziaren iritziz, Konstituzioaren 24. artikuluan jasotako defentsa-eskubidea bermatzeko beharrezkoa den jarduketa da, zehapen-prozedura batean norbere burua defendatzeko froga-elementu egokia izan daitekeelako. Hortaz, salaketa artxibatu da.

- **Eusko Jaurlaritzak hitzorduetarako online prozeduran egindako datu pertsonalen tratamendua (DN23-002)**

Erreklamatzailleak Agentzian salaketa aurkeztu du, Eusko Jaurlaritzak on-line hitzorduen eskariak direla-eta egindako datu pertsonalen tratamenduarengatik. Salatu duenez, datuak eman ondoren «Pribatutasun-politikaren baldintzak» dioen lauki batean klik egitera behartzean eskatzaileak emandako adostasuna ez da baliozkoa.

Salatu duenez, halaber, zerbitzua hobetze aldera inkestak egiteko gerora datuen tratamendua eginez datuen babeserako araudia urratzen da.

Salaketa artxibatu da. Agentziaren iritziz, pribatutasun-politikaren baldintzei buruzko laukia markatzearen asmoa ez da adostasuna jasotzea, baizik eta informazioa emateko eginbeharra bete dela egiaztatzea. Bestalde, zerbitzua hobetzeko gerora inkestak egitearen helburuak ez du urratzen helburua mugatzearen printzipioa, helburua bateragarritzat jotzen baita. Gainera, kasu honetan disoziatutako informazioa erabiltzen da.

- **Eusko Jaurlaritzak deitutako lanpostuen finkapenerako prozesuetan desgaitasuna duten pertsonen txandaren bidez sartu diren pertsonen izen osoa argitaratzea eta txanda orokorraren bidez sartu diren pertsonak desgaitasuna duten pertsonak nor diren jakitea. (DN23-006)**

Aurkeztu den erreklamazio-idazkiak dioenez, Eusko Jaurlaritzak lanpostuak finkatzeko bideratutako prozesuan desgaitasuna duten pertsonen txandaren bidez



sartu diren pertsonen izen-abizen osoak dakartzan zerrendak argitaratu dira. Gainera, salatu da txanda irekiaren bidez sartu diren parte-hartzaileek irispidea izan dutela zerrenda horietara.

Erreklamazioa artxibatu da, arrazoi honengatik: hautaketa-prozesuetan osasunari buruzko datuen tratamendua egiteko lege-babesa dago enplegu publikora sartzeko prozesuak arautzen dituen estatuko eta autonomia-erkidegoko araudian, prozesu horietan desgaitasuna duten pertsonen bete beharreko lanpostu hutsen kupo bat erreserbatu behar izaten baita.

Halaber, araudi horrek eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko legeak behartuta, hautaketa-prozedurak edo norgehiagokako prozedurak osatzen dituzten administrazio-egintzak argitaratu behar dira.

Bestalde, prozesua arautzen duten oinarriek legitimatzen dute parte-hartzaileek desgaitasuna duten pertsonen txandaren bidez nor sartu den eta hautaketa-prozesua nola bilakatzen ari den jakiteko eskubidea izatea, bidezkoa izanez gero beren eskubideak egikaritzeko. Izan ere, inor ere ez aurkezteagatik edo hautaketa-prozesua ez gainditzeagatik lanpostu horiek bete gabetzat jotzen badira, lanpostu horiek sarbide orokorraren modalitatean eskainitakoei metatuko zaizkie.

Agentziaren gomendioa da, zerrendak argitaratzean, desgaitasuna duten pertsonentzat erreserbatutako txanda dela beren-beregi aipatu beharrean gako bat, letra bat edo erreferentzia bat jartzea, parte hartzen duten horiek identifikatu ahal izateko inguruabar hori beren-beregi aipatu gabe.

- **Datuak irispidean izatea eta lagatzea, bidegabeki (DN23-007)**

Salatzaileak azaldu duenez, Administrazioako funtzionario batek ekonomia-arloko datu pertsonaletara irispidea izan du eta geroago datu horiek komunikatu dizkio hirugarren bati, zeinarekin auzitegietan adostasunik gabeko auzi bat baitauka. Hala ere, salatzaileak ez du frogarik aurkeztu, ezta arrazoizko zantzurik ere, egiaztatu ahal izateko pribatutasuna urratu dela edo Administrazioak erantzukizuna izan duela.

Salaketa artxibatu da, salatzaileak egitateei buruz emandako bertsioa babesteko informazio nahikorik ez dagoelako. Beraz, egindako jarduketetatik ez da ondorioztatu Administrazioak datuen babesaren arloko arau-hauste bat egozteko moduko ezer egin duenik.

- **Datuen tratamendua Ticketbairen kudeaketan (DN23-011)**

Salatu da Gipuzkoako Foru Aldundiak, farmaziek medikamentuak ematearen ondorioz Ticketbai sistema kudeatzen duenean, osasunari buruzko datu pertsonalak tratatzen dituela.

Salaketa artxibatu da, Ticketbai sistema erregulatzen duen araudian datuen babeserako araudia betetzeko neurriak jasotzen direlako. Halaber, datuen babeserako araudia betetzen dela bermatzen duten softwareak jartzen dira erabiltzaileen esku.



- **Sindikatu batek jarritako kexa bat beste sindikatu bati helaraztea (DN23-013)**

Sindikatu-ordezkarri batek kexa-idazki bat aurkeztu du Osakidetzan. Dokumentu baten bidez, kexa bat azaltzen da, Osakidetza bere lokalak erabiltzeko baimena ematen diolako beste sindikatu bati. Osakidetza azken sindikatu horri helarazi dio jasotako idazkia, zeinean datu pertsonalak agertzen baitira, zehazki erreklamazioa egin duen sindikatuko ordezkariarenak. Helarazpen horrek berez dakarren datu-tratamendua salatu da.

Salaketa artxibatu da. Agentziaren iritziz, erreklamatzailerak argudiatzen duenez baliteke idazkiaren xede den auzia antolakundearen barneko alderdi bati buruzkoa izatea (ente publikoaren lokalak erabiltzea sindikatu-jardura egiteko), baina baliteke, halaber, hartu beharreko erabakiak argi eta garbi hirugarrenen eskubideak ukitzea, kasu honetan beste sindikatu batek sindikatu-askatasuna baliatzea.

- **Posta elektronikoko helbide pertsonalak erabiltzea lan-arloko xedeetarako (DN23-014)**

Salaketak dioenez, Agentziaren arau-hauste prozedura batean emandako ebazpena urratzen da. Hain zuzen ere, ebazpen hartan Gasteizko Udalari ohartarazpena egin zaio, udaltzaingoko agenteen posta elektronikoko helbide pertsonalak lan-arloko xedeetarako erabiltzeagatik.

Udalak emandako informazioaren arabera, agenteen posta elektronikoko helbide pertsonalak erabiltzeari utzi zaio eta beste neurri batzuk hartu dira datu pertsonalen babeserako araudia betetzen laguntzeko, adibidez iragarki-ohol fisikoan agenteen identifikazio pertsonaleko zenbakiak erabiltzea eta plantillari posta elektronikoko helbide korporatiboak esleitzea.

Gainera, salaketa aurkeztu duen entitateak ez du alegaziorik aurkeztu Udalaren adierazpenen aurka. Beraz, ondorioztatu ahal da neurriak egokiak direla datu pertsonalen babeserako araudia betetzen dela ziurtatzeko eta, horrenbestez, salaketa artxibatu ahal da.

- **Lurzati pribatu batean ateratako argazkiak udal administrazio-espeditante batean sartzeta (DN23-016)**

Tratatutako irudiak hirigintza-arloko salaketa bat oinarritzeko froga-elementuak dira. Ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoak ezartzen duenez, EAEn hirigintzaren printzipio orokorrak herritarren parte-hartzea eta jendaurreko informazioa dira. 8.2 c) artikuluan azaltzen denez, parte-hartzearen printzipioak eskubide hau dakar: «Legitimazio berezirik behar izan gabe, bidezko diren akzioak erabili ahal izatea, hala administrazio-bidean nola auzi-bidean, herri-administrazioei nahiz subjektu pribatuei hirigintzako legeria eta plangintza bete dezaten exijitzeko». Kasu honetan salatu den datu pertsonalen tratamendua bat dator DBEOren 5.1 a) artikuluan ezarritako zilegitasunaren printzipioarekin.



Artxibatzeke ebazpenaren aurka, erreklamatzailleak berraztertzeke errekurtsua jarri du (RR23-009) eta errekurtsu hori ezetsi da, Agentziaren iritziz salatutako datu pertsonalen tratamendua bat datorrelako DBEOren 5.1 a) artikuluan ezarritako zilegitasunaren printzipioarekin: argazkien egileak interes legitimoa dauka, hirigintzako ekintza publikoa egikaritzeko. Berraztertzeke errekurtsuari buruzko ebazpenaren aurka errekurtsua jarri da administrazioarekiko auzien jurisdikzioan.

- **Hildako pertsona baten aditu-txostena egitea eta zabaltzea (DN23-017)**

Hildako pertsona baten arrebak erreklamazio bat aurkeztu du: bere iritziz, nebari buruzko aditu-txosten mediko bat egin eta gerora txosten hori zabaldu izana ohorerako, norberaren intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidearen urraketa da.

Datuen babeserako araudiak bere aplikazio-eremutik kanpo uzten du hildako pertsonen datuen tratamendua; beraz, salaketa Agentziaren eskumen-eremutik kanpo geratzen da.

Horri dagokionez, salaketan datu pertsonalen babesetik aparteko beste eskubide batzuk aipatzen dira, esate baterako ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidea, Espainiako Konstituzioaren 18.1 artikuluan onartzen dena. Intimitaterako oinarritzko eskubidea maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoan, Ohorerako, Norberaren eta Familiaren Intimitaterako, eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilari buruzkoan arautzen da. Lege horren zioen azalpenak dioenez, «Eskubideen subjektuaren heriotzarekin pertsonalitatearen eskubideak azkentzen dira, baina hildakoaren memoria pertsonalitate horren luzapena da, eta hori ere Zuzenbideak babestu behar du». Horrenbestez, erreklamatzailleak oinarritzko eskubide horren babes zibila jaso nahi badu, babes judiziala eskatu beharko du bere ohorerako eta norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidean esku sartzeagatik, eta prozesu zibila sustatu 1/1982 Lege Organikoaren babespean.

- **Anbulantzia-zerbitzuak datu pertsonaletara irispidea bidegabeki izatea (DN23-018)**

Salaketan ez da egiaztatu jokabide arau-hauslerik dagoenik, eta egindako jarduketetatik ondorioztatzen diren egitateetan ez da ikusten Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari datuen babesaren arloko arau-hauste bat egotzi ahal zitzaionik; horregatik, jarduketak artxibatu dira.

- **Historia klinikora irispidea izatea (DN23-022)**

Erreklamatzaillearen ustez, norbaitek bere historia klinikora bidegabeki izan du irispidea hainbat aldiz. Osasunari buruzko datuen tratamendua debekatuta dago DBEOren 9.1 artikuluen arabera, baina 2. apartatuan zenbait salbuespen azaltzen dira.

Osakidetzak egindako jarduketak aztertu ondoren, zera ondorioztatu da: irispidea izan zen helburu zehatz batzuk betetzeko beharrezkoa zelako, eta hala betetzen



dira DBEOren 9.2 artikuluan aipatzen diren baldintza batzuk; beraz, salaketa artxibatu da.

- **Salatzailearen identitatea salatuari komunikatzea (DN23-023)**

Euskal legebiltzarkide batek Jaurlaritzako goi-kargudun baten aurka egindako salaketa jaso du Eusko Jaurlaritzako Etika Publikorako Batzordeak. Batzordeak salaketa helarazi dio salatuari, salatzailearen identitatea ezabatu gabe. Informazio hori salatuari helarazi izana salatu du salatzaileak Datuak Babesteko Euskal Bulegoan.

Erreklamazioaren xede den datuen tratamendua aztertutakoan, Agentziak zera ondorioztatu du: informazio hori salatuari soilik komunikatu zaio, eta legebiltzarkide batek kontrol-eginkizuna betetzearen ondorioz sortu da (salaketa legebiltzarkideak bere posta elektronikoko helbide korporatibotik bidali zuen, eta salaketarekin batera bere talde parlamentarioaren idazpurua daraman dokumentazioa bidali zuen); bada, kasu honetan informazio horren pribatutasuna ez zaie gailentzen babestu beharreko beste ondasun juridiko batzuei.

- **Historia klinikorako irispidea bidegabeki izatea (DN23-028)**

Salaketa artxibatu da preskripzioagatik, ustezko arau-haustea gertatu zen egunetik sei urte igaro ondoren aurkeztu zelako salaketa Datuak Babesteko Euskal Bulegoan, eta epe hori arau-hauste horien preskripziorako ezarritakoa baino luzeagoa da.

- **Datu pertsonalen tratamendua zerga-ikuskapen batean (DN23-031)**

Salaketa aurkeztu da BFAko Ogasun eta Finantza Sailaren aurka, salatzailearen klinika estetikoko pazienteen datuak tratatzeagatik, Ogasun Sailak egiaztapen eta ikerketa prozedura batean egindako jarduketan ondorioz. Salaketa artxibatu da, ulertzen baita BFAko Ogasun Sailak behar diren neurriak hartu dituela salatzailearen pazienteei egindako errekerimenduetatik ondorioztatzen diren tratamenduek datuak babesteko araudia bete dezaten.

- **Errolda-ziurtagiria egitea adostasunik gabe (DN23-038)**

Erreklamatzailerak salatu duenez, jaso duen demandarekin batera doan dokumentazioan Plentziako Udalak egindako errolda-ziurtagiri bat ageri da, eta erroldatutako pertsonak ez dute adostasunik eman horretarako. Errolda-ziurtagiri bat interesdunen adostasuna izan gabe egitea baliteke zilegitasunaren printzipioaren urraketa izatea. Hori arau-hauste oso astuna da eta, DPBEBLOren 72.1 artikulua araberak, hiru urteren buruan preskribatzen da.

Horren haritik, usteko egintza arau-hauslea da errolda-ziurtagiria egin izana. Hori 2020ko uztailaren 28an egin zen, baina salaketa-idazkiaren data 2023ko uztailaren 28a da, eta Bizkaiko Foru Aldundiko erregistroan 2023ko abuztuaren 1ean aurkeztu zen; hau da, DPBEBLOk ezartzen duen hiru urteko preskripzio-epea amaitu





ondoren. Ondorioz, ezinbestean esan behar da ustezko arau-haustea preskribatu dela, eta beraz salaketa artxibatu behar dela.

- **Erreklamatzailearen jabetzeko etxebizitzan erroldatutako pertsonen buruzko informazioa (DN23-042)**

Erreklamatzaileak informazioa eskatu du bere helbidean erroldatuta dauden pertsonen buruz, eta Arraia-Maeztuko Udalak informazio hori ukatu dio. Udalak zuzen jokatu du hasierako informazio-eskaria ukatzean, erroldatutako pertsonen ez dutelako adostasunik eman beren datu pertsonalak komunikatzeko; gainera, une horretan prozedura judizial baten xede zen utzarazpen bat egon da tartean.

Geroago, utzarazpena betearazi ondoren, eta etxebizitzan erreklamatzailea ez den beste inor ere erroldatuta ez dagoela egiaztatu denez, errolda-ziurtagiria ematea onartu du.

Beraz, ondorioztatu ahal da Arraia-Maeztuko Udalak datu pertsonalak babesteko araudia ez duela urratu eta salaketa artxibatu behar dela. Hala ere, salaketa artxibatzeak ez du galarazten erreklamatzaileak bere uzia bete izana, lortu nahi zuen informazioa eskuratu baitu azkenean.

- **NANaren kopia hirugarrenei lagatzea adostasunik gabe (DN23-050)**

Erreklamatzaileak salatu duenez, prozedura judizial batean pertsona batek bere NANaren kopia bat erabili du berak adostasunik eman gabe eta pertsona horrek dokumentu hori lortu du, agian, udalerrri bateko udaltzaingoak epaitegiari aurreko prozedura judizial bateko polizia-gorabeherak eman dizkiolako.

Agentzia eskudunek datu pertsonalak arau-hauste penalak prebenitu, detektatu, ikertu eta epaitzeko tratatzen dituztenean arlo hori eraentzen duen araudia bete behar dute, gaur egun maiatzaren 26ko 7/2021 Lege Organikoa, zeinaren bidez Espainiako ordenamendu juridikoan txertatzen baita Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/680 (EB) Zuzentaraua, 2016ko apirilaren 27koa.

Salatutako komunikazioaren datan, tratamendu horiek abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzkoak (DBLO) arautzen zituen, zehazki lege horren 22. artikulua eta legea garatzeko xedapenak, hala ezartzen baita abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzekoaren (DDPBEDBLO) 4. xedapen iragankorren.

Salatutako egitateengatik datu pertsonalak babesteko araudia urratu al den egiaztatzea dagokio Agentziari, baina erreklamazioa artxibatu da, arau-hausteen gehieneko preskripzio-epea igarotakoan aurkeztu delako.

4.3 ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ARAU-HAUSTE PROZEDURAK

Halako prozedurak Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio eta instituzio publikoei irekitzen zaizkie, uste bada datu pertsonalak babesteari buruzko esparruan arau-haustea izan daitekeen portaeraren bat izan dutela. Prozedura



horiek amaitzeko bi modu daude: artxibatzea ala, hala badagokio, ohartarazpena egitea eta neurri zuzentzaileak hartzeko eskatzea.

2023. urtean 26 arau-hauste prozedura berri hasi dira eta 22 ebatzi dira. Emaiza honako hau izan da: hemeretzi ohartarazpen deklaratu dira, eta hiru prozedura artxibatu dira.

- **Historia klinikora bidegabeki irispidea izatea (PI22-017)**

Osakidetza-EOZen aurkako salaketa aurkeztu da, enteko profesional batek historia klinikora bidegabeki izan duelako irispidea. Profesional hori izenarekin eta abizenekin identifikatu da.

Izapidetutako prozeduran egiaztatuta geratu da, erreklamatzaileraren historia klinikora irispidea izan duten aldien zerrenda osoa aztertuta, Euskal Osasun Zerbitzuko pertsona horrek ez duela inoiz ere irispidea izan erreklamatzaileraren historia klinikora.

Beraz, espedientea artxibatzea ebatzi da.

- **Datu zehaztugabeak Osakidetza-EOZen erregistroetan: Zehaztasunaren printzipioa urratzea (PI22-018)**

Erreklamatzailerak salatu duenez, Osakidetza-Euskal Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak egindako dokumentu batzuetan, esate baterako larrialdietako alten eta proba osagarrien txosten batzuetan, salatzailearen helbidea oker ageri da.

Izapidetutako prozeduran egiaztatuta geratu da Osakidetzaren datu-basean agertzen zen helbidea zehaztugabea zela eta, beraz, zehaztasunaren printzipioa urratu dela.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari ohartarazpena egin zaio, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 5.1. d) artikuluko zehaztasunaren printzipioa urratzeagatik, jokabide hori lege-testu beraren 83.5 a) artikuluan tipifikatutako arau-haustea delako eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoaren 72.1 b) artikuluan arau-hauste oso astuntzat jotzen delako, preskripzioaren ondorioetarako.

Hala eta guztiz ere, egiaztatu denez, ebazpena eman zen egunean, salatzaileari buruz Osakidetzaren erregistroetan zeuden datuak aldatu ziren, eta erreklamatzailerak Datuak Babesteko Euskal Bulegoari adierazi zizkion haiexek ziren; beraz, kasu honetan ez da eskatu neurri zuzentzailearik hartzeko.

- **Minimizazioaren printzipioa urratzea, diruz lagundutako entitateari erreklamatzaileraren identitatea komunikatzeagatik (PI22-019)**

Informazio publikoa eskuratzeko prozedura batean, Hondarribiko Udalak dirulaguntza baten onuradun den entitate bati komunikatu dio dirulaguntzaren gaineko informazioa eskatu zuen pertsonaren identitatea. Datu horiek komunikatu dira Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeak hirugarren interesdunak



epatzeko emandako ebazpena betetzean. Irispidea izatea eskatu zuen pertsonaren identitatea komunikatzeak DBEOren 5.1 c) artikuluan ezarritako minimizazioaren printzipioa urratzen du, informazio hori ez delako beharrezkoa eskaria ebazteko.

Erreklamatzaillearen identitateari buruzko informazioa, orokorrean, ez da komunikatu behar ukitutako hirugarrenen alegazioetarako izapidea betetzeko. Kasu horietan, hirugarrenak berak, bere interesak aldezteko datu hori behar izanez gero, horren berri eman beharko lioke Administrazioari eta azken horrek, ukitutako eskubideak haztatutakoan, hauteman beharko luke, arrazoiak emanda, eskatzailearen identitatea jakitea funtsezkoa den ala ez hirugarrenen eskubide eta interesak aldezteko.

Udalari ohartarazpena egin zaio Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 5.1.c) artikuluan aldarrikatzen den minimizazioaren printzipioa urratzeagatik, jokabide hori lege-testu horren 83.5.a) artikuluan ezarritako arau-hauste bat delako.

Kasu honetan Administrazioari errekerimendua egin zaio, informazio publikoa eskuratzeko prozeduretan pribatutasunaren arloko irizpideak aplika ditzan, halako moduz non, lehenetsita, ukitutako hirugarrenentzako entzunaldi-izapidean, ez baita komunikatuko eskatzailearen identitatea. Gainera, tratamendu hori beharrezkoa dela erabakiz gero, behar bezala haztatu beharko da.

- **Diziplina-espedientea hasteko erabakia, azken ebazpena eta erreklamatzaileri buruzko dokumentazioa (erreklamatzaillearen osasunari buruzko datuen informazioa barnean dela) komunikatzea sindikatu-ordezkariei eta Udal Patronatu bateko langileen kudeaketaz arduratzen diren funtzionarioei (PI22-021)**

6/1989 Legearen, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoaren 86.3 artikuluan jasota dagoen eginbeharra funtzionarioek egindako arau-haustek sindikatu-ordezkariei komunikatzeko legitimazio-oinarria da, baina informazioa emateko eginbehar hori bete daiteke behar-beharrezkoak diren datuak baino ez emanda, hau da, hasitako diziplina-espedienteen zerrenda, espedientea ireki zaien pertsonen identifikazioa eta emaitza, arau-hauste arinengatik, astunengatik edo oso astunengatik dela ere, baina ez dago zertan bidali diziplinako espedientearen erabaki osoa edo azken ebazpena, ezta are gutxiago, erreklamatzaileri buruzko dokumentazio erantsia ere.

Bestalde, erreklamatzaillearen osasunari buruzko datuen informazioa barnean duen dokumentazioa bidaltzeko ez dago legitimazio-oinarririk 6/1989 Legearen 86.3 artikuluan, osasunari buruzko datuak datu-kategoria berezien barruan daudelako; hain zuzen ere, datu horien tratamendua egiteko, DBEOn neurri indartuak ezartzen dira, baina kasu honetan, ez da halakorik hartu.

Donostia Kirola udal patronatuari ohartarazpena egin zaio DBEOren 5.1 c) artikuluko minimizazioaren printzipioa eta 5.1 a) artikuluko zilegitasunarena urratzeagatik, jokabide biak ere DBEOren 83.5 a) artikuluan tipifikatuta daudela, eta errekerimendua egin zaio antolakuntza-neurri egokiak har ditzan, etorkizunean printzipio horiek bermatzeko, bereziki diziplina-espedienteetan agertzen diren osasunari buruzko datuen tratamenduetan.



Udal Patronatuak Agentziari jakinarazi dizkio hartutako neurriak.

- **Beste pertsona batentzako ebazpena jasotzea (PI23-001)**

Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak salatzaileari hutsegitez jakinarazi zion hirugarren bati zuzendutako errekurtsio baten ebazpena.

Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailari ohartarazpena egin zaio DBEOren 32. artikuluan azaltzen den tratamenduaren segurtasuna urratzeagatik, jokabide hori DBEOren 83.4 a) artikuluan ezarritako arau-haustea delako.

- **Zenbait segurtasun neurri ez edukitzea (PI23-002)**

Osakidetza-EOZen aurkako salaketa aurkeztu da osasun-zentro batean segurtasun-neurriak falta direlako; izan ere, medikuaren eta pazienteen arteko elkarriketak entzutea dago.

Izapidetutako prozeduran ez da egiaztatuta geratu aurkeztutako erreklamazioa benetakoa denik, eta ez dago justifikaziorik, ezta nahikoa edo arrazoizkoa den zantzu bidezko frogarik ere, prozedurarekin aurrera jarraitzeko. Hortaz, erreklamazioa artxibatu da.

- **Trafikoko isun batean irudi bat erabiltzea (PI23-003)**

Bizkaiko Trafikoko Lurralde Unitateari atxikitako bi agentek, trafikoa zaintzeko eginkizunak betetzen ari direla, salaketa bat aurkeztu dute erreklamatzaileraren bikotekidearen aurka, trafikoko arau-hauste batengatik. Salaketa izapidetzean argazki batzuk egin dituzte, trafikoko zehapen-prozedurarako frogabide gisa, eta argazki horiek salatuari (erreklamatzaileraren bikotekideari) bidali dizkiote. Bidalitako argazkietan erreklamatzaila identifikatu ahal da, salatua gidari zen ibilgailuan bidaiari zihoala.

Agentziak Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari ohartarazpena egin dio, Datuak Babesteko Europako Erregelamenduaren 5.1.c) artikuluko datuen minimizazioaren printzipioa urratzeagatik, jokabide hori lege-testu horren 83.5 a) artikuluan ezarrita dagoelako; halaber, errekerimendua egin zaio, barneko antolakuntza-arloko neurriak har ditzan, berriro ez gertatzeko prozedura horretan aipatutakoa bezalako egoerarik, ebazpenaren oinarri juridikoetan zehazten denaren arabera.

- **Epaimahai baten erabakia argitaratzea hautaketa-prozesu batean (PI23-004)**

Salatu denez, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren iragarki-oholean eta sailaren aplikazioan argitaratu da bide-segurtasunean espezializatzeko ikastaro batera sartzeko hautaketa-prozeduraren ardura duen kalifikazio-epaimahaiak merezimenduak baloratzeko hartutako erabakia. Erabaki horretan, parte hartu duten agenteen izen-abizenak argitaratu dira.



Prozeduraren ebazpenean Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiari ohartarazpena egin zaio DBEOren 5.1 f) artikuluan azaltzen den osotasun eta konfidentzialtasunaren printzipioa urratzeagatik eta errekerimendua egin zaio neurri egokiak har ditzan, hautaketa-prozesuak izapidetzean tratatutako datu pertsonalen konfidentzialtasuna urratzea galarazteko.

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak komunikatu ditu hartutako neurriak, hau da, argitalpenetan identifikazio profesionaleko zenbakiak erabiltzea.

- **Tokiko gobernu-batzar baten aktaren datuak komunikatzea (PI23-005)**

Asparrenako Udalak tokiko gobernu-batzarraren bilera baten akta bidali die tokiko gobernu-batzarraren kide ez diren hirugarren batzuei, dokumentu horretan agertzen diren datu pertsonalak aurretiaz disoziatu gabe.

Agentziak Asparrenako Udalari ohartarazpena egin dio, Datuak Babesteko Europako Erregelamenduaren 5.1.a) artikuluko datuen zilegitasunaren printzipioa urratzeagatik, jokabide hori lege-testu horren 83.5 a) artikuluan ezarrita dagoelako; halaber, errekerimendua egin zaio, barneko antolakuntza-arloko neurriak har ditzan, berriro ez gertatzeko prozedura horretan aipatutakoa bezalako egoerarik, ebazpenaren oinarri juridikoetan zehazten denaren arabera.

- **Arabako Foru Aldundiak Ticketbairen kudeaketan egindako datu-tratamendua (PI23-006)**

Salatu da Arabako Foru Aldundiak, farmaziek medikamentuak ematearen ondorioz Ticketbai sistema kudeatzen duenean, osasunari buruzko datu pertsonalak tratatzen dituela.

Prozedura artxibatu da, Ticketbai sistema erregulatzen duen araudian datuen babeserako araudia betetzeko neurriak jasotzen direlako. Halaber, datuen babeserako araudia betetzen dela bermatzen duten softwareak jartzen dira erabiltzaileen esku.

- **Gardentasunaren eta konfidentzialtasunaren printzipioa urratzea adinekoen egoitza bateko erabiltzaileen bisitarien datuak jaso eta erregistratzean (PI23-007)**

Kabia foru organismo autonomoaren mendeko adinekoen egoitza bateko bisita-liburuan bisitarien datuak agertzen dira, eta egoitzak bisitariei ez die informaziorik ematen haien datuekin egingo den tratamenduari buruz, DBEOren 13. eta 14. artikuluetan ezartzen denaren arabera. Hala, DBEOren 5.1 a) artikuluan ezarritako gardentasunaren printzipioa urratzen da.

Halaber, bisita-liburuen kudeaketarako hartutako neurri tekniko eta antolakuntzakoek ez dute galarazten bisitariak egoitzako erabiltzaileen gainerako bisitarien datuak irispidean izatea eta, hala, DBEOren 5.1. f) artikuluan ezarritako konfidentzialtasunaren printzipioa urratzen da.



Kasu honetan Kabiari ohartarazpena egin zaio, DBEOren 5.1. artikuluko a) eta f) apartatuetan ezarritako osotasun eta konfidentzialtasunaren printzipioa urratzeagatik, arau-hauste hori lege-testu horren beraren 83.5. a) artikuluan tipifikatuta baitago.

Hala ere, onartu behar da jokabidea ez dela izan hain gaitzesgarria. Izan ere, arduradunak jakin duenean datuen tratamenduan gabezia batzuk zeudela, konponbidea jartzen saiatu da, ahalik eta kalte txikiena sortzeko eta etorkizunean antzeko ezer gertatzea galarazten saiatzeko.

- **Telefono mugikorraren zenbaki pertsonala lan-arloko helburuetarako erabiltzea (PI23-008)**

Salatu da Vitoria-Gasteizko Udaleko Udaltzaingoak, aparteko eta gutxieneko zerbitzuak betetzeko indargarri-sistema kudeatzean, telefono-zenbaki pribatuak eta ez korporatiboak eskatzen dituela, eta zenbaki horietara bidaltzen direla indargarrien kudeaketarekin zerikusia duten WhatsAppeko mezuak. Osotasun eta konfidentzialtasunaren printzipioa urratu dela deklaratu da, gailu horiek ez direlako gai Segurtasunaren Eskema Nazionalean administrazio publikoentzat ezartzen diren eskakizunak betetzen direla bermatzeko.

- **Erreklamatzailleak hirugarren baten datuetara irispidea izatea Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren OTI digitala aplikazioan (PI23-009)**

Erreklamatzailleak, nahi gabe, irispidean izan ditu hirugarren datu pertsonalak, OTI DIGITALA (plastikozko euskarrian dagoen OTI txartelaren bertsio digitala) izeneko tratamendu pilotua (Arabako ESIra hedatzea) abian jartzean. Iripidea izatean datu pertsonal batzuk agerian geratu dira (horien artean izen-abizenak, NANaren zenbakia, OTIaren zenbakia, Osasun Sistema Nazionaleko kodea eta iraungitze-data). Datu horien tratamenduaren arduraduna Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren mendeko Aseguramendu eta Kontratazio Sanitarioko Zuzendaritza da, eta tratamenduaren eragilea EJIE sozietate publikoa da.

Gertakari horren zioz, tratamenduaren arduradunak pertsona gehiago ukitu dituen segurtasun-arrakala bat jakinarazi du; segurtasun-arrakala hori garaiz jakinarazi da, eta datu pertsonalen erabilgarritasuna eta osotasuna ez dira arriskuan egon. Arduradunak eta eragileak segurtasun-arrakala behar bezala kudeatu dute, ondorioak arintzeko neurri zuzentzaileen aldetik eta ukituentzako komunikazioaren aldetik, kontuan hartuta, halaber, programazioko akats informatikoaren konponketa, akats horrengatik hirugarren batek baimenik gabe datu pertsonaletara irispidea izan baitu.

Tratamenduaren arduradunak DBEOren 5.1 f) artikulua urratu du, konfidentzialtasun-arrakalaren ondorioz erreklamatzailleak hirugarren baten datu pertsonalak beharrik gabe irispidean izan dituelako eta, hala, DBEOren 5.1.f) artikuluan ezarritako konfidentzialtasunaren printzipioa urratu delako.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Aseguramendu eta Kontratazio Sanitarioko Zuzendaritzari ohartarazpena egin zaio arau-hauste horrengatik; era berean, ohartarazpen horretan onartu da haren jokabidea ez dela hain gaitzesgarria izan,



segurtasun-arrakala azkar kudeatu duelako eta neurri zuzentzaile egokiak hartu dituelako.

- **Osakidetza-EOZek Agentziaren ebazpen bat ez betetzea (PI23-010)**

Osakidetza-EOZek Agentzia honi ez dio jakinarazi babes-prozedura batean emandako ebazpena bete duenik, administrazio horri hiru errekerimendu egin zaizkion arren; gainera, errekerimendu horietako azkenean ohartarazi zaio kontrol-Agentzia honek emandako ebazpena ez betetzea DBEOren 83.6 artikulua urraketa dela.

Urraketa horregatik arau-hauste prozedura ireki da. Prozedura horretan Osakidetza-EOZek ez du alegaziorik egin eta, azkenean, Osakidetza-EOZi ohartarazpena egin zaio DBEOren 83.6 artikulua urratzeagatik; halaber, ET21-035 zenbakiko babes-prozeduran emandako ebazpen irmoa bete eta betearaz dezala eskatu zaio.

- **Historia klinikora irispidea izatea eta Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak laguntzarik ez ematea (PI23-011)**

Norbaitek bere historia klinikora bidegabeki irispidea izan duela salatu du erreklamatzailerak. Informazioa eskatu zaion arren, Osakidetza-EOZek ez du erantzunik eman; horregatik, arau-hauste prozedura bat hasi da, ustez norbaitek historia klinikora bidegabeki irispidea izan duelako eta Osakidetza-EOZek laguntzarik eman ez duelako.

Hala ere, ebazpen-proposamenaren aurka egindako alegazioetan Osakidetza-EOZek emandako informazioan baieztatu denez, historia klinikora irispidea izan duen pertsonaren identitatea erreklamatzailerak jasotzen duen tratamenduari lotutako profesional sanitarioarena da; horrenbestez, salaketa jarri arren, datuetara irispidea izatea zilegi izan da, eta DBEOren 5.1.a) artikulua dioena bete da.

Kontrol-Agentziari laguntzarik ez emateari dagokionez, tamalez, salatutako enteak ez du informaziorik eman —gainera, testuinguru honetan osasunari buruzko datuen tratamendua egin da eta, esan denez, datu pertsonalak babesteko araudiak datu horien babes sendoagoa ematen du—. Hala, ebazpen-proposamenaren aurkako alegazioen izapidean eskatutako informazioa aurkeztu arren, kontuan izan behar da Osakidetza-EOZek salaketari buruzko bi informazio-errekerimenduri ez diela erantzun, eta Agentziak arau-hauste prozedura bat hasi behar izan duela. Beraz, salatutako enteari ohartarazpena egin zaio kontrol-Agentziari laguntzarik ez emateagatik; hain zuzen ere, jokabide hori DBEOren 83.4.a) artikuluan tipifikatuta dago.

- **Hirugarrenen datuak dakartzan jakinarazpen bat jasotzea (PI23-012)**

Gipuzkoako Foru Aldundiko Haurren eta Nerabeen Babeseko Zerbitzuak eskola-jazarpenari buruzko prozedura batean inplikaturako adingabe guztien datu pertsonalak (izena, bi abizenak, jaioteguna, helbidea eta aitaren/amaren telefono-



zenbakia) komunikatu dizkio kasuan inplikaturako adingabe bati, gainerako inplikaturai buruzko datuak aurretiaz disoziatu gabe.

Gipuzkoako Foru Aldundiari ohartarazpena egin zaio, DBEOren 5.1 a) artikuluan ezarritako zilegitasunaren printzipioa urratzeagatik, jokabide hori DBEOren 83.5 a) artikuluan ezarritako arau-haustea baita.

Kasu horretan ez da eskatu neurri zuzentzailerik hartzeko, neurri horiek administrazioak lehenago hartu dituelako.

- **Osotasun eta konfidentziasunaren printzipioa urratzea (PI23-013)**

Aurkeztutako erreklamazio-idazkiak dioenez, Etxebarriko Udalak posta elektronikoko mezu bat bidali die udalekuetan parte hartzeko eskatu zuten pertsonari, ezkutuko kopian jarri gabe, pertsona horietako bakoitzari buruz jasotako informazio guztiarekin, onartutako behin-behineko zerrenda jakiteko ezinbestekoa den informazioa jarri beharrean.

Udalari ohartarazpena egin zaio, Datuak Babesteko Europako Erregelamenduari 5.1. f) artikuluan jasota dagoen osotasunaren eta konfidentziasunaren printzipioa urratzeagatik. Printzipio horrek xedatzen duenez, arduradunak eta eragileak behar bezala segurtasuna bermatu behar dute, baimenik gabeko edo legez kontrako tratamenduari aurkako babesa eta datuok ustekabea galdu, suntsitu edo kaltetzearen aurkako babesa barne, horretarako antolakuntzako neurri eta neurri tekniko egokiak erabiliz. Eginbehar horregatik, bere eginkizunak betetzean tratatzen duen informazioa gorde behar du, eta hirugarrenek informazio hori irispidean izan ahalko dute baldin eta horretarako legimititatea ematen duten oinarri juridikoa badago. Eginbehar horren mendean daude tratamenduari edozein fasetan esku hartzen duten pertsona guztiak ere.

Diseinutik abiatutako edo lehenetsitako pribatutasunerako neurriak har ditzatela iradoki da, posta elektronikoko mezu masiboak ezkutuko kopiarik gabe bidaltzea eragozteko.

- **Datu gehiegi eskatzea (PI23-016)**

Donostia Kirola Udal Patronatuak, interesdunek patronatuaren web-orrian izena eman ahal izan dezaten, nahitaezko datu gisa eskatu du euskararen ezagutza maila, eta informazio hori eman gabe ezinezkoa da erregistro-prozesuan aurrera egitea.

Era berean, Agentziak detektatu duenez, erreklamazioa aurkezteko unean, web-orrian dagoen informazio-klausulak ez zuen barnean hartzen DBEOren 13. artikuluan eskatzen duen informazio guztia; gainera, indarrean ez dagoen araudi bat aipatzen da.

Donostia Kirolari ohartarazpena egin zaio gardentasunaren eta minimizazioaren printzipioak (DBEOren 5.1 artikuluko a) eta c) letrak) urratzeagatik, jokabide hori DBEOren 83.5 a) artikuluan tipifikatuta baitago; eta eskatu zaio barneko antolakuntzako neurriak har ditzala, berriro ez gertatzeko prozedura horretan aipatutakoa bezalako egoerarik, eta Agentziari neurri horiek jakinaraz diezazkion hilabeteko epean, ebazpena jakinarazten zaionetik aurrera zenbatuta.



Administrazioak Agentziari jakinarazi dizkio hartutako neurriak.

- **Historia klinikora bidegabeki irispidea izatea (PI23-017)**

Osakidetza-EOZen aurka salaketa aurkeztu da, erreklamatzaillearen historia klinikora irispidea bidegabeki izan dutelako enteko profesional batzuek, haren adostasunik gabe eta hark jakin gabe (DN23-025).

Izapidetutako prozeduran egiaztatuta geratu da Euskal Osasun Zerbitzuko langile fakultatibo batzuek erreklamatzaillearen historia klinikora irispidea izan dutela eta horretarako ez dagoela justifikaziorik laguntza- edo administrazio-jarduketa batengatik.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari zehapena ezarri zaio ohartarazpen bidez, Datuak Babesteko Europako Erregelamenduaren 5.1 f) artikulua urratzegatik, jokabide hori lege-testu horren beraren 83.5 a) artikuluan ezarrita dagoelako; halaber, errekerimendua egin zaio, barneko antolakuntzako neurriak har ditzan, berriro ez gertatzeko prozedura horretan aipatutakoa bezalako egoerarik, ebazpenaren oinarri juridikoetan zehaztu denaren arabera.

Ente publikoak Agentziari ez dizkio komunikatu hartutako neurriak.

- **Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren ebazpena ez betetzea (PI23-018)**

Osakidetza-EOZen aurkako salaketa aurkeztu da, Agentziak ET22-023 zenbakiko espedientean emandako ebazpena ez betetzeagatik. Ebazpen horretan onartzen da erreklamatzailleak eskubidea duela bere historia klinikora eta bere seme adingabearen historia klinikora irispidea izan dutenen erregistroa irispidean izateko.

Hasitako arau-hauste prozedura osoan Osakidetza-EOZek ez du alegazio bat ere egin.

Prozeduraren amaieran, Osakidetza-EOZi ohartarazpena egin zaio DBEOren 83.6 artikulua urratzeagatik; izan ere, Agentzia honek ET22-023 zenbakiko babes-prozeduran emandako ebazpen irmoa ez da bete.

Gainera, Osakidetza-EOZi errekerimendua egin zaio, ebazpena bete dezan (alderdi erreklamatzailari bidaliz eskatutako datetan haren historia klinikora irispidea izan zutenen erregistroa) eta antolakuntzako neurri egokiak har ditzan erantzukizun proaktiboari buruzko eginbeharrak betetzen direla bermatzeko eta Agentziari behar bezalako laguntza emateko, bai eta hilabeteko epean hori guztia egin izana kontrol-Agentzia honi komunikatzeko.

Ente publikoak Agentziari ez dizkio komunikatu hartutako neurriak.

- **Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren ebazpena ez betetzea (PI23-019)**

Osakidetza-EOZen aurkako salaketa aurkeztu da, Agentziak ET23-003 zenbakiko espedientean emandako ebazpena ez betetzeagatik. Ebazpen horretan onartzen da



erreklamatzailleak eskubidea duela bere historia klinikora irispidea izan dutenen erregistroa irispidean izateko.

Hasitako arau-hauste prozedura osoan Osakidetza-EOZek ez du alegazio bat ere egin.

Prozeduraren amaieran, Osakidetza-EOZi ohartarazpena egin zaio DBEOren 83.6 artikulua urratzeagatik; izan ere, Agentzia honek ET23-003 zenbakiko babes-prozeduran emandako ebazpen irmoa ez da bete.

Gainera, Osakidetza-EOZi errekerimendua egin zaio, ebazpena bete dezan (alderdi erreklamatzaileri bidaliz eskatutako datetan haren historia klinikora irispidea izan zutenen erregistroa) eta antolakuntzako neurri egokiak har ditzan erantzukizun proaktiboari buruzko eginbeharrak betetzen direla bermatzeko eta Agentziari behar bezalako laguntza emateko, bai eta hilabeteko epean hori guztia egin izana kontrol-Agentzia honi komunikatzeko.

Ente publikoak orain ere Agentziari ez dizkio komunikatu hartutako neurriak.

- **Adingabe baten historia klinikora bidegabeki irispidea izatea (PI23-021)**

Osakidetza-EOZen aurka salaketa aurkeztu da, erreklamatzaillearen seme adingabearen historia klinikora irispidea bidegabeki izan dutelako enteko profesional batzuek, haren adostasunik gabe eta hark jakin gabe (DN23-033).

Izapidetutako prozeduran egiaztatuta geratu da Euskal Osasun Zerbitzuko langile fakultatibo batzuek erreklamatzaillearen semearen historia klinikora irispidea izan dutela eta horretarako ez dagoela justifikaziorik laguntza- edo administrazio-jarduketa batengatik. Era berean, egiaztatu denez, prozedura osoan Datuak Babesteko Euskal Bulegoak Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari errekerimenduak egin dizkio hainbat aldiz, baina Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak ez du erantzunik eman, ez salaketa-espedientea izapidetzean, ez arau-hauste prozedura izapidetzean.

Horregatik ebatzi da Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari ohartarazpena egitea, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 5.1.f) artikulua urratzeagatik, jokabide hori lege-testu beraren 83.5 a) artikuluan ezarritako arau-haustea delako eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko Lege Organikoaren 72.1 a) artikuluan arau-hauste oso astuntzat jotzen delako, preskripzioaren ondorioetarako eta, era berean, DPBEDBLOren 73.o) artikuluan arau-hauste astuntzat jotzen delako.

Gainera, errekerimendua egin zaio, antolakuntzako neurri egokiak har ditzan erantzukizun proaktiboari buruzko eginbeharrak betetzen direla bermatzeko eta Agentziari behar bezalako laguntza emateko, bai eta hilabeteko epean hori guztia egin izana komunikatzeko.

Ente publikoak Agentziari kasu honetan ere ez dizkio komunikatu hartutako neurriak.



4.4 AUTOAK ETA EPAIAK

2023. urtean, epaitegi eta auzitegiek irizpenak eman dituzte honako gai hauei buruz:

- **Adingabe baten datu pertsonal zehaztugabeak Biztanleriaren Erregistro Estatistikoan (PI19-028)**

Kasu honetan, erreklamatzailleak salaketa aurkeztu du bere seme adingabearen datuak tratatzeagatik; Euskal Autonomia Erkidegoan bizi den atzerriko biztanleria etorkinaren gaineko inkestan jaso dute bidegabeki, hain zuzen ere, datu horien laginak EUSTATEk hartu baitzituen.

EUSTATi ohartarazpena egin zaio Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 5.1.d) artikuluan jasotako zehaztasunaren printzipioa urratzeagatik. Erregelamendu Orokorraren 83.5 a) artikuluan jasota dagoen arau-haustea da, eta DPBEDBLOren 72.1. a) artikulua arau-hauste oso astuntzat jotzen du. Halaber, errekerimendua egin zaio neurri egokiak hartzeko eta horren berri emateko, etorkizunean DBEOren 5.1 a) artikuluan jasotako zehaztasunaren printzipioa ez dadin berriro urratu.

EUSTATEk ez ditu jakinarazi hartutako neurriak, eta administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu du Agentziaren ebazpen zehatzailearen aurka.

Administrazioarekiko auzien epaitegiak errekurtsoa ezesteko epaia eman du.

Epaiaaren aurka apelazio-errekurtsoa aurkeztu da, eta errekurtso hori Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salak ezetsi du.

Eustatek kasazio-errekurtsoa aurkeztu ostean, Auzitegi Gorenaren Auto baten bitartez kasazio-errekurtsoa onartu ez dela deklaratu da, kasazio-interesik ez edukitzeagatik.

- **Erreklamatzaillearen datuak lanbide-elkargo bateko kideei komunikatzea, lanbide-elkargo horretako zuzendaritza batzordeko kideen hautaketa-prozedura deuseztatzeko prozedura judizial batean emandako epaia transmititzean (DN22-043)**

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak erreklamazioa artxibatu du, bere iritziz elkargo horrek legitimazio-oinarria daukalako elkargokideei ebazpen judiziala -prozesuaren emaitzak deuseztatzekoa- jakinarazteko, ebazpen horren ondorioz hauteskundeak berriro egin behar baitira. Legitimazio-oinarri hori da epaiaren hartzaile diren elkargokideak karguetarako hauteskundeetan hautesle edo hautagai izan daitezkeela eta, beraz, ebazpen judiziala jakiteko interes legitimoa daukatela. Aurkeztutako erreklamazioa artxibatu da.

Artxibatatzeko ebazpenaren aurka berraztertzeko errekurtsoa (RR22-011) aurkeztu da, eta hori ezetsi egin da, interes legitimo baten titularrak izanik eskubidea dutelako hauteskunde-prozesua deuseztatzen duen ebazpen judizialaren berri izateko. Horrek esan nahi du ezinbestekoa dela haiei funtsezko elementu batzuk



jakinaraztea prozedura judizialean agertu ahal izateko, barnean direla harreman juridiko-prozesalaren datuak, besteak beste demandatzailearen identifikazio-datuak. Berraztertze errekurtsoari buruzko ebazpenaren aurka errekurtsoa jarri da administrazioarekiko auzien jurisdikzioan.

Azkenik, 2023ko azaroan, administrazioarekiko auzien epaitegi batek deklaratu du errekurtsoa ez dela onartzen, legitimazio aktiborik ez egoteagatik.





5 SEGURTASUN-ARRAKALAK JAKINARAZTEA

2016/679 (EB) Erregelamendu Orokorrak, Datuak Babestekoak 33. artikuluan (Datu pertsonalen segurtasunaren urraketa kontrol-Agentziari komunikatzea) xedatzen duenez, tratamenduaren arduradunak, datu pertsonalen arrakala bat gertatu dela jakin bezain laster, kontrol-Agentzia eskudunari jakinarazi beharko dio, arrakala horrek pertsonen eskubide eta askatasunetarako arriskua ekar badezake; hala badagokio, arrakala atzerapenik gabe jakinarazi behar da, arrakalaren berri izan eta 72 ordu igaro baino lehen; horri dagokionez, asteburuetan eta jaiegunetan igarotzen diren orduak ere zenbatzen dira.

2023. urtean datu pertsonalen segurtasunaren 23 arrakala jakinarazi dira. Kontuan izan behar da datu pertsonalen segurtasun-arrakalen jakinarazpenak hasierakoak (11), osoak (3) eta osagarriak (9) izan daitezkeela.

JAKINARAZPEN MOTA	AZALPENA
Hasierakoa	Jakinarazteko unean beharrezkoa den informazio guztia emateko eginbeharra ezin bada bete, HASIERAKO jakinarazpena egiteko aukera aurreikusten da. Horretarako, formulario elektronikoa bat bete behar da eskueran dagoen aurretiazko informazio guztiarekin edo, hala badagokio, datu pertsonalen segurtasun-arrakalari buruzko aurretiazko balioespenak jarri behar dira.
Osoa	Jakinarazteko unean datu pertsonalen segurtasun-arrakala kudeatzeko eta ebazteko esanguratsua den informazio guztia eskueran dagoenean -arrakala ukituei komunikatzeko erabakia barnean dela-, jakinarazpen OSOA egingo da, ez dagoelako aurreikusita tratamenduaren arduradunak informazio gehigarria eman behar duenik.
Osagarria	Hasierako jakinarazpena egin eta hurrengo 30 eguneko epea igaro baino lehen, tratamenduaren arduradunak informazio guztia bete beharko du jakinarazpen OSAGARRIAREN bitartez, eta informazio horren barnean egongo da datu pertsonalen arrakala ukituei komunikatzeari buruz hartutako erabakia.

2023ko amaieran segurtasun-arrakalak komunikatu dituzten entitate eta erakunde publikoen kopuruari buruzko laburpen orokorra honako taula honetan ageri da:



ADMINISTRAZIO MOTA	JAKINARAZITAKO ARRAKALAK
Instituzio autonomikoak	9
Foru instituzioak	1
Toki erakundeak	10
Beste erakunde batzuk	3
Guztira	23

Arrakalaren intentsitate-maila eta ukituek jasan ditzaketen ondorioak:

INTENTSITATE-MAILA	JAKINARAZITAKO ARRAKALAK
Oso handia	Baliteke pertsonen ondorio oso nabarmenak jasatea, atzera gabekoak edo gainditu ezinak (gizarte-bazterkeria edo marjinazioa, finantza-arloko eragozpenak, adibidez zor handiak edo lan egiteko ezintasuna, gaitz psikologiko edo fisikoak epe luzean, heriotza eta abar). Oinarritzko eskubideei eta askatasun publikoei kalte itzulezina eragiten die.
Handia	Baliteke pertsonen ondorio handiei aurre egin behar izatea; gainditzeko moduko ondorioak izango lirateke, baina zailtasun handiekin (funtsak bidegabe eralgitzea, bankuen zerrenda beltzak, jabetzari kalteak egitea, enplegua galtzea, zitazio judiziala, osasunak txarrera egitea eta abar). Orokorrean, ondorioek oinarritzko eskubideak ukitzen dituzte, baina onera itzultzea dago.
Ertaina	Baliteke pertsonen eragozpen handiak izatea, eta kalte txikia jasatea; hori guztia gainditu ahalko izango lukete, zaila izan arren (kostu gehigarriak, merkataritza-zerbitzuak erabiltzeko debekua jasatea, beldurra, ezin ulertzea, estresa, gaitz fisiko txikiak eta abar)
Txikia	Pertsonen ez dute kalterik jasango edo baliteke eragozpen mugatu eta itzulgarri batzuk izatea, arazorik gabe gainditzeko modukoak (informazioa berriro sartzeko denbora, deserosotasuna, haserrea eta abar)



2023ko amaierako laburpen orokorra, arrakalaren intentsitate-mailari eta ukituek jasan ditzaketen ondorioei dagokionez, honako taula honetan ageri da:

INTENTSITATE-MAILA	JAKINARAZITAKO ARRAKALEN KOPURUA
Oso handia	2
Handia	8
Ertaina	4
Txikia	9
GUZTIRA	23

Arrakalak pertsona fisiko interesdunei komunikatzeari dagokionez, datu pertsonalen arrakalak ukitutako pertsonen eskubide eta askatasunetarako arrisku handia dakarrenean, arrakala kontrol-Agentziari jakinarazteaz gain ukituei datu pertsonalen arrakala komunikatu beharko zaie atzerapen bidegaberik gabe; gainera, arrakala laburki eta gardentasunez komunikatu behar da, hizkera argia eta erraza erabilita. Datu pertsonalen arrakala bat kontrol-Agentziari jakinarazteko edo ukituei komunikatzeko parametro erabakigarria arrisku-maila da. Ez erakundearentzako edozein arrisku-mota, edo edozein arrisku, baizik eta, zehazki, arrakalak ukitu dituen pertsona fisikoen eskubide eta askatasunetarako arriskua.

2023ko amaierako laburpen orokorra, pertsona fisiko interesdunei datu pertsonalen segurtasun-arrakalak komunikatzeari dagokionez, honako taula honetan ageri da:

ARRAKALA KOMUNIKATZEA INTERESDUNEI	ARRAKALEN KOPURUA
KOMUNIKATU DA	2
EZ DA KOMUNIKATU	20
ORAINDIK ERABAKI GABE DAGO	1
GUZTIRA	23



6 DATUAK BABESTEKO ORDEZKARIEN ERREGISTROA

2016/679 (EB) Erregelamendu Orokorrak, Datuak Babestekoak 37.1 artikuluan xedatzen duenez, datu pertsonalen tratamendua egiten duena **Agentzia edo erakunde publiko bat** bada, pertsona bat Datuak Babesteko Ordezkari (DBO) izendatu behar da. Halaber, 37.7 artikuluan ezarrita dagoenez, datuak babesteko ordezkariaren harremanetarako datuak kontrol-Agentziari komunikatu behar zaizkio.

DBEOk xedatzen du datuak babesteko ordezkaria izendatu behar dela tratamendu-arduradunentzat zein tratamendu-eragileentzat; hala ere, DBEBz ari garela, gaur egun Eusko Legebiltzarraren 2/2004 Legeak ezarritako eskumen-esparrua hartu behar da aintzat, eta bigarren artikuluan zerrendatutako «Agentzia eta erakunde publikoak» dira behartuta dauden subjektuak.

Nabarmendu behar da 2022ko martxoan aldaketa egon zela eta aurrerantzean EAEko administrazio publikoek DBOa beste modu batean komunikatu behar dutela. Ordura arte, DBOa komunikatzeko pdf formatuko inprimaki bat bete behar zen eta, gerora, DBEBri posta elektronikoko bidez igorri. Aurrerantzean, DBEBren web-orrian eskura dagoen izapide telematiko bat bete behar da.

Halaber, 2023. urtean datuak babesteko ordezkariaren izendapena komunikatu ahal izateko izapide telematikoa aldatu da pertsona fisikoentzat nahiz entitate juridikoentzat, batzordeentzat eta lantaldeentzat (azken hiru horietarako, harremanetarako pertsona bat izendatu behar da).

2023. urtean datuak komunikatzeko egin diren eskabideen kopurua (alta, DBOaren harreman-datuen aldaketa, kargua uztea) eta azkenik inskribatu diren eskabideen kopurua honako taula honetan ageri dira.

Eskabide mota	Komunikatuak	Inskribatuak
Alta	62	53
DBOaren harreman-datuen aldaketa	3	1
Kargu-uztea	3	2
Guztira	68	56

2023ko amaieran DBOen harremanetarako datuak komunikatu zituzten entitate eta erakunde publikoen kopuruari buruzko laburpen orokorra honako taula honetan ageri da:



ADMINISTRATIO MOTA	ZENBAT DBO KOMUNIKATUTA
Instituzio autonomikoak	69
Foru instituzioak	16
Toki instituzioak	251
Beste erakunde batzuk	53
Guztira	389

Erregistratutako DBOak, guztira, 2022an 369 izan ziren; 2023an, aldiz 389. Beraz, % 5,42ko gorakada egon da.

6.1 TOKI ADMINISTRATIOA

Udalez ari garela, honako taula honetan jaso da udalen eta komunikatutako ordezkarien kopuruen banaketa, populazio-geruzen arabera:

BIZTANLEAK	UDALAK	DBOak	%-a
< 500	60	41	% 68,33
500 - 999	39	30	% 76,92
1.000 - 4.999	79	66	% 83,54
5.000 - 9.999	29	27	% 93,10
10.000 - 19.999	24	19	% 79,17
20.000 - 49.999	14	13	% 92,86
50.000 - 99.999	2	2	% 100,00
> 100.000	4	4	% 100,00
Guztira	251	202	% 80,48

2022. urteari dagokionez, DBEBri DBOa komunikatu dioten udalen kopurua 193tik 202ra igo da; horrek esan nahi du % 4,66ko igoera egon dela.

6.2 TRATAMENDU-ARDURADUNEK DATUAK BABESTEKO ORDEZKARIAREKIN DUTEN LOTURA

Datuak babesteko ordezkariaren eta tratamendu-arduradun den entitatearen arteko harremana honelakoa izan daiteke:

- barnekoa:
 - pertsona fisikoa.
 - lantaldea edo batzordea,
- kanpokoak:
 - autonomia.
 - enpresa.



Hona izendatutako DBOen kopurua, tratamenduaren arduradunarekiko enplegu-
arloko harremanaren arabera (barnekoa: pertsona fisikoa, lantaldea edo batzordea;
kanpoko: autonomia, enpresa):

Barnekoa		Kanpoko	
Pertsona fisikoa	Lantaldea / Batzordea	Autonomia	Enpresa
101	2	20	266
103		286	
Guztira		389	

Izendatutako DBOen banaketa, lurralde historikoaren arabera, honako hau da:

Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
73	179	137
Guztira		389

Hona hemen izendatutako DBOen kopurua, tratamendu-arduradunarekiko enplegu-
arloko loturaren arabera (barnekoa edo kanpoko) eta zein administrazio mota den
kontuan hartuta:

ADMINISTRAZIO MOTA	DBOak	Barnekoa	Kanpoko	Barnekoaren %-a
Instituzio autonomikoak	69	24	45	% 34,78
Foru instituzioak	16	9	7	% 56,25
Toki instituzioak	251	59	192	% 23,51
Beste erakunde batzuk	53	11	42	% 20,75
Guztira	389	103	286	% 26,48

Euskal administrazio publikoen herenak baino gutxiagok erabaki du barneko DBOa
izendatzea, batzuk plantillakoa eta beste batzuk beste entitate publiko batekoa.

Toki administrazioek izendatutako DBO kopurua aztertzen badugu populazioaren
arabera, ikusten da 50.000 biztanle baino gehiagoko udal guztiek (Bilbok,
Gasteiz, Donostiak, Barakaldok, Getxok eta Irunek) erabaki dutela barneko DBOa
izendatzea, eta 20.000 biztanlera heltzen ez direnek, ordea, kanpoko DBOen
zerbitzuak kontratatzea erabaki dutela.


BIZTANLEAK	DBOa	Barnekoa	Kanpoko	Barnekoaren %-a
< 500	41	17	24	% 41,46
500 - 999	30	9	21	% 30,00
1.000 - 4.999	66	8	58	% 12,12
5.000 - 9.999	27	2	25	% 7,41
10.000 - 19.999	19	2	17	% 10,53
20.000 - 49.999	13	7	6	% 53,85
50.000 - 99.999	2	2		% 100,00
> 100.000	4	4		% 100,00
Guztira	202	51	151	% 25,25



7 BARNE KUDEAKETA

7.1 EGITURA ETA LANGILERIA

7.1.1 Langileen plantilla



7.1.2 Zuzendaritza

Datuak Babesteko Euskal Bulegoko zuzendariak zuzentzen du Bulegoa, eta entitatearen ordezkaria da.



Uztailaren 4ko 100/2023 Dekretuaren bidez, Datuak Babesteko Euskal Bulegoko zuzendaria kargutik kendu zen (Margarita Uria Etxebarria, EHAA - 2023ko uztailaren 7a).

Uztailaren 4ko 101/2023 Dekretuaren bidez, Datuak Babesteko Euskal Bulegoko gaur egungo zuzendaria izendatu zen (Unai Aberasturi Gorriño, EHAA - 2023ko uztailaren 7a).

7.1.3 Egitura organikoa eta lanpostu-zerrenda (LZ)

- **Egitura organikoaren aldaketa**

Datuak Babesteko Agintaritzen arau-esparru berriaren barruan bereziki aipatzekoak dira apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen (DBEO), gerora onartutako abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (DPBEDBLO), eta maiatzaren 26ko 7/2021 Lege Organikoa, arau-hauste penalak prebenitu, detektatu, ikertu eta epaitzeko eta zehapen penalak betearazteko tratatutako datu pertsonalak babesteari buruzkoa.

Ordenamendu juridikoan bat-batean sakonera handiko araudi berrikuntzak eta lege-proiektuak sartu izanak ekarri zituen erronka berri eta handiei aurre egin behar dien administrazio-Agentzia independente baten funtzionamendu efizienterako funtsezko eginkizunei erantzun beharrak, ezinbestekoa egin zuen egitura organikoaren aldaketa izapidetzea. Aldaketa hori Datuak Babesteko Euskal Bulegoko zuzendariaren 2023ko martxoaren 29ko Ebazpen bidez onartu zen.

- **Lanpostu-zerrendaren aldaketa (funtzionarioak)**

Lanpostu-zerrendak euskal administrazio publikoek beren barne-egiturak arrazionalizatu eta ordenatzeko baliatzen dituzten tresnak dira, baita langile-beharrizanak zehaztu, lanpostuetan jarduteko betekizunak definitu eta lanpostu bakoitza sailkatzeko ere, efikaziari, efizientziari eta antolaketarako arrazionaltasunari buruzko irizpideen arabera (abenduaren 1eko 11/2022 Legearen, Euskal Enplegu Publikoarenaren 45. artikulua).

Egitura organikoaren aldaketaren ondorioz, DBEBren lanpostu-zerrenda eguneratu zen, halako moduz non egitura organikoaren aldaketa horiek agertu baitziren, eta datuen babesaren esparruan onartutako arau juridiko berriek sorrarazitako beharrianetara egokitu zen.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoko zuzendariaren 2023ko maiatzaren 8ko Ebazpenaren bidez, lanpostu batzuk aldatzeko prozesua hasi zen eta, azkenik, zuzendariaren 2023ko maiatzaren 25eko Ebazpenaren bidez lanpostu-zerrendaren aldaketa onartu zen (EHAA - 2023ko ekainaren 8a).



- **Lanpostu-zerrendaren aldaketa (behin-behineko langileak)**

Entitateko gaur egungo Zuzendaritzak bete nahi duen teknologia- eta administrazio-arloko modernizazioko planaren helburuen arabera aurrera egitea beharrezkoa zenez, DBEBko Zuzendaritzak adituen aholkua jaso behar zuen, baita laguntza ere teknologia- eta administrazio-arloko modernizazioko plana prestatzeko, DBEBko unitate batzuen eta besteen jarduketa koordinatuz eta teknologia- eta administrazio-arloko modernizazioko planaren helburuetarako administrazio kudeaketako prozesuen egokitzapena gainbegiratzuz.

Horrenbestez, Datuak Babesteko Euskal Bulegoko behin-behineko langileen lanpostu-zerrenda aldatu zen, zuzendariaren 2023ko irailaren 18ko Ebazpen bidez onartu ondoren (EHAA - 2023ko urriaren 2a).

7.1.4 Lanpostuak finkatzeko salbuespenezko lan-eskaintza publikoa

- Bitarteko funtzionarioak finkatzea

Abenduaren 28ko 20/2021 Legearen, Enplegu publikoaren behin-behinekotasuna murrizteko premia-ko neurrienaren seigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa betetze aldera, Datuak Babesteko Euskal Bulegoko zuzendariaren 2022ko abenduaren 26ko Ebazpenaren bidez enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuaren deialdi publikoa egin zen honako lanpostu hauetan:

Lanpostuaren izena	Tald./ Azpitald.	LM osagarriaren maila	Dot.	Ber. osag.	HE	Derrig. data
Letradu instruktore- ikuskatzailea	A/A1	27	2	II-B	4	2006-01-31
Letradu instruktore- ikuskatzailea	A/A1	27	4	II-B	4	

Lehiaketa burutu ondoren, eta prozesuaren oinarriak kontuan izanik, Datuak Babesteko Euskal Bulegoko zuzendariaren 2023ko uztailaren 5eko Ebazpenaren bidez Datuak Babesteko Euskal Bulegoan enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesua ebatzi zen (EHAA - 2023ko uztailaren 31).

7.2 AURREKONTUAK

Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 13. artikulua honako hau ezartzen du: «*Datuak Babesteko Euskal Bulegoak urtero-urtero aurrekontu-aurregitasmoa egin eta onartu beharko du. Gero, Eusko Jaurlaritzara bidali beharko du, han, behar bezain ondo bereizita, Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan sar dezaten, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu-sistema arautzen duten legeen arabera*».

2022ko urriaren 10eko Ebazpenaren bidez, Datuak Babesteko Euskal Bulegoko zuzendariak 2023. ekitaldiko aurrekontuaren aurreproiektua onartu zuen eta Eusko Jaurlaritzari igortzeko agindu zuen, modu beregainean EAEko Aurrekontu Orokorretan txertatzeko.



Abenduaren 23ko 15/2022 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko 2023. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituenak, honako hau ezartzen du 1.4 artikuluan: «Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren aurrekontua ere onartzen da eta lege honen barruan sartzen da, hala ezartzen baita Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 13. artikuluan».

7.2.1 2023ko aurrekontu-betearazpena

GASTUEN AURREKONTUA

Kapitulua	KAPITULUEN IZENA	Kredituak guztira	Onartutako obligazioak	Egindako ordainketak	Ordaintzeke	Betearazpen egoera
1	Langileen gastuak	2.359.495,00	1.337.472,21	1.318.180,69	19.291,52	% 56,68
2	Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	576.100,00	203.994,10	175.143,35	28.850,75	% 35,41
4	Transferentzia arruntak	9.000,00				
6	Inbertsio errealak	92.000,00	58.193,81	44.625,03	13.568,78	% 63,25
	Gastuen batura guztira	3.036.595,00	1.599.660,12	1.537.949,07	61.711,05	% 52,68

SARREREN AURREKONTUA

Kapitulua	KAPITULUEN IZENA	Behin betiko aurreikuspenak	Eskubide garbiak	Egindako sarrerak	Kobratzeke	Betearazpen egoera
4	Transferentzia arruntak	2.650.200,00	2.650.200,00	2.650.200,00		% 100
7	Kapital transferentziak	15.000,00	15.000,00	15.000,00		% 100
8	Finantza-aktiboak	371.395,00				
	Sarrerren batura guztira	3.036.595,00	1.878.196,40	1.878.196,40		% 61,85

7.2.2 Ekonomia, finantza eta kontabilitate arloetako kontrola

DBEB kontabilitate publikoaren araubidearen menpe dago eta Autonomia Erkidegoko Administrazio Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Sailaren ekonomia, finantza eta kudeaketa arloko kontrolaren menpe; horrek denak ez du esan nahi ekonomia eta finantzarako eta kontabilitateko jarduerak Herri Kontuen Euskal Epaitegiak kontrolatuko ez dizkionik.

DBEBren kudeaketa eta kudeaketa ekonomiko-finantzarioa egokiak diren aztertzeke, eta Bulegoari esparru ekonomikoan dagozkion xedapenak eta jarraibideak betetzen direla ziurtatzeko, Eusko Jaurlaritzako Kontrol Ekonomikoko Bulegoa ari da kontu-auditoretzak urtean behin egiten.

- 2022ko auditoretza

2022ko ekitaldiko kontuak, programatutako helburuen betetze-mailari buruzko memoriarekin batera aurkeztu ziren horiek, 2023ko martxoaren 20an ikuskatu ziren. Hona zer dioten auditoretzaren azken txostenak:



«... honekin batera doazen urteko kontuek entitatearen alderdi esanguratsu guztietan 2022ko abenduaren 31n ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten dute; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion emaitzena eta eskudiru-fluxuena ere, aplikatu beharreko finantza informazioaren araudi-esparruaren arabera (araudi hori memoriaren 6.2 oharrean identifikatzen da) eta, zehazki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideen arabera.

Egindako lanean oinarrituta, ebatzi dugu gure txostenean ez dagoela zertan jakinarazi arrisku esanguratsuagorik, behintzat auditoretzan kontuan hartutakoen artetik funtsezko auziak sortzeko moduko arriskurik.

Helburuak betetzeari buruzko memorian biltzen den informazioa bat dator 2022ko ekitaldiko urteko kontuen informazioarekin, eta edukia, baita informazioa aurkezteko modua ere, bat datoz aplikatu beharreko araudiarekin».

7.3 BALIABIDE MATERIALAK

7.3.1 Egoitza

DBEBk bere jarduera Apaizgaitegiaren eraikinean egiten du (Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 71, 3. solairua, 01008 Vitoria-Gasteiz). 2023ko martxoaren 31ra arte, EJIE SArekin azpierrentamenduko kontratua zeukan lokal horiek erabiltzeko.

Apirilaren 1etik aurrera «Apaizgaitegia» eraikinaren kudeaketaz Baliabide Orokorren Zuzendaritza arduratzen da; Agentziak bere jarduera lokal horietan beraietan egiten jarraitzen du, eta lokalen erabilera doan lagatuta dauka.

7.3.2 Beste zenbait kontratu txiki

Hainbat kontratu txiki egin da DBEBren funtzionamendua bermatzeko. Garrantzitsuenak honako hauei buruzkoak dira:

- Lokalen alokairua
- Ekipo informatikoen alokairua
- Fotokopiagailuen mantentze-lana
- Bulegoko materiala eta ekipoak erostea
- Egunkariak, aldizkariak eta liburuak erostea
- Posta bidezko komunikazioen zerbitzua
- Aplikazio informatikoen mantentze-lanak eta ustiapena
- Ekitaldiak antolatzea eta ekitaldiotan parte hartzea
- Urteko memoria argitaratzea
- Langileen bizi- eta istripu-aseguruak
- Kanpoko prebentzio-zerbitzua (LAP)



7.3.3 Egitura teknologikoa eta aplikazioen hobekuntza

DBEBk eta EJIEk izenpetutako lankidetzarako esparru hitzarmenaren baitan (2023ko Addendaren bidez garatuta) hainbat zerbitzu eta dotazio informatiko eta komunikazio-zerbitzu burutu dira, eta egitura informatikoa hobetzen jarraitu da, bai hardwarearen aldetik, bai softwarearen aldetik.

7.4 LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOKO POLITIKA

7.4.1 Laneko Arriskuen Prebentziorako Plana

Laneko Arriskuen Prebentzioko Legeak hainbat eginkizun eta betebeharrak ezartzen ditu, eta horien artean prebentzio-plan bat ezartzea dago. Prebentzio-planak erakundeek lan jarduerak guzti-guztia hartu behar du bere baitan. Datuak Babesteko Euskal Bulegoak uste du hori oinarritzeko egin beharra dela.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak uste du laneko segurtasuna, pertsonen osasuna eta lan-ingurunearen zainketa eta hobekuntza funtsezko jarduerak direla erakundeak kudeatzeko.

Prebentzio-jarduerak sendotzearen eta hobetzearen aldetik, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak ezarritako Laneko Arriskuen Prebentzioko politika garatzen du eta, horretarako, prebentzioko ekintzak eta ekintza zuzentzaileak planifikatzen eta burutzen ditu urtero.

Jarduerak-planen barruan, 2023an honako jarduketak hauek egin dira:

- Segurtasunaren, Higienearen eta Ergonomia/Psikosoziologiaren esparruko Jardueren urteko plana
 - Lanpostuko lan-arriskuen ebaluazio etengabea
 - Laneko arriskuei buruzko informazioa langileentzat
- Osasunaren Zainketa arloko Jarduerak Planaren urteko egitaraua
 - Medikuntza azterketak

7.4.2 COVID-19aren ziozko kontingentzia-planak

2023an, SARS-CoV-2 koronabirusaren eraginpean egoteagatik arrisku-eraketarako kontingentzia-planak jasotako neurriak aplikatzen jarraitu du DBEBk. Plan hori IMQ Prevención enpresak (kanpoko prebentzio-zerbitzua) egin zuen 2020an, DBEBko hainbat laguntzailerekin batera.

2023ko ekitaldian ezarritako lanaldia eta ordu-tegiak betetzea dagokionez, nabarmentzekoa da lanaldiko ordu murrizketak ezartzen eta telelana sustatzen jarraitu dela, lantokietan pertsonen presentzia murriztik ez egotea eta garraio kolektiboetan egindako joan-etorriak murrizteko.

Orain arte, Bulegoan egindako esperientzia orokorrean pozik egotea modukoa izan da, jarduerak betetzea eta zerbitzua behar bezala emateari begira prebentzio-neurriak erabiltzeko aldetik.



7.5 KUDEAKETA JASANGARRIA ETA INGURUMEN-INPAKTUA

7.5.1 Kudeaketa jasangarria

Entitate honen jarduera kontuan hartuta, ez du ondarearekin, finantza-egoerarekin eta horren emaitzekin alderatuta garrantzirik izan dezakeen ingurumen jatorriko erantzukizunik, gasturik, aktiborik ezta hornidurarik, ez kontingentziarik ere.

Entitatea ez da berotegi-efektuko gasak emititzeko eskubideen titularra, eta ez dauka kontrolik halako eskubideen gainean.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren funtzionamendu arruntean gizarte, ingurumen eta ekonomia gaietan hobetzeko politikak aplikatzen dira, Bulegoak bere eskumenak egikaritzean dauzkan legezko eginbeharrez harago.



8 AHOLKULARITZA JURIDIKO ETA IKUSKARITZA UNITATEARI BURUZKO DATUAK

8.1 AHOLKULARITZA-EGINKIZUNARI BURUZKO DATUAK

Kontsultak

2023. urtea		Kopurua
Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra	Osasun Saila	1
Foru Administrazioa eta Toki Administrazioa	Gipuzkoako Foru Aldundia	1
	Iruña Okako Udala	1
	Maruri-Jatabeko Udala	1
Beste entitate batzuk	Elkargo ofizialak	1
JASOTAKO KONTSULTA KOPURUA GUZTIRA		5

Irizpenak

2023. urtea	Kopurua
EGINDAKO IRIZPENAK GUZTIRA	3

Legezkotasun-txostenak

2023. urtea	Kopurua
Lege-aurreproiektuak / Dekretu-proiektuak / Aginduak	13
EGINDAKO TXOSTENAK GUZTIRA	15

8.2 KONTROL-EGINKIZUNARI BURUZKO DATUAK

Eskubideak babesteko erreklamazioak

2023. urtea	Kopurua
Jasotako babes-eskariak	26
Ebatzitako babes-eskariak	23

Salaketak

2023. urtea	Kopurua
Aurkeztutako salaketak	76
Ebatzitako salaketak	62



Arau-hauste prozedurak

2023. urtea	Kopurua
Hasitako arau-hauste prozedurak	26
Ebatzitako arau-hauste prozedurak	22



9 BARNE KUDEAKETARI BURUZKO DATUAK

9.1 AURREKONTU-PLANTILLARI BURUZKO DATUAK

2023an DBEBren batez besteko plantilla honako hau zen, kategoria orokorren arabera:

Kategoria	Dotazioak	Batez besteko plantilla
Zuzendaria	1	1
Goi-mailako teknikariak	16	13,29
Administrariak	4	2
GUZTIRA	21	16,29

Hona hemen plantillaren egoera 2023ko abenduaren 31n, sexua kontuan hartuta:

Kategoria	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Zuzendaria		1	1
Goi-mailako teknikariak	5	9	14
Administrariak	1	1	2
GUZTIRA	6	11	17

Urteko aurrekontu-plantillako lanpostuen aldakuntza honako hau izan da:

Plantilla, langileen moten eta mailaren arabera	2023ko abe.		2022ko abe.	
	Dotazioa	Benetakoa	Dotazioa	Benetakoa
GOI-KARGUDUNAK ZUZENDARIA	1	1	1	1
BEHIN-BEHINEKO LANGILEAK AHOLKULARIA I-A / 28 MAILA	1	1	1	
FUNTZIONARIOAK				
GOI MAILAKO TEKNIKARIA I-A / 28 MAILA	3	2	3	3
GOI MAILAKO TEKNIKARIA II-A / 27 MAILA	2	2	1	1
GOI MAILAKO TEKNIKARIA II-B / 27 MAILA	7	7	7	7
GOI MAILAKO TEKNIKARIA II-C / 27 MAILA			1	1
GOI MAILAKO TEKNIKARIA III-B / 25 MAILA	2	1	2	
GOI MAILAKO TEKNIKARIA III-C / 25 MAILA	1	1	1	1
ADMINISTRARIA IV-A / 22 MAILA	1	1	1	1
ADMINISTRARIA V-A / 20 MAILA	1	1		
ADMINISTRARIA V-C / 20 MAILA	1		2	1
GOI-KARGUDUNAREN IDAZKARIA VI-A / 18 MAILA	1		1	
GUZTIRA	21	17	21	16



9.2 AURREKONTU-BETEARAZPENARI BURUZKO DATUAK

9.2.1 2023ko aurrekontuaren likidazioa

Gastuen aurrekontua

Azalpena	Behin betiko aurrekontu-kredituak	Onartutako obligazioak	Ordainketak	Ordaindu gabeko obligazioak abenduaren 31n	Betearazpen egoera	Onartutako obligazioak 2022
Izena	Kredituak guztira	Onartutako obligazioak	Egindako ordainketak	Ordaintzeke	Betearazpen egoera	Onartutako obligazioak 2022
Goi-kargudunen ordainsariak	97.395,00	89.791,20	89.791,20		% 92,19	82.993,52
Behin-behineko langileak	77.556,00	52.469,39	52.469,39		% 67,65	17.331,86
Funtzionarioen ordainsariak	1.649.898,00	942.097,14	942.097,14		% 57,10	927.357,13
Entitatearen konturako gizarte kotizazioak	453.024,00	215.284,22	200.914,24	14.369,98	% 47,52	222.258,37
Pentsio-sistema osagarrietarako ekarpenak	45.622,00	21.527,40	16.890,41	4.636,99	% 47,19	20.745,92
Langileen prestakuntza eta hobekuntza	6.500,00	654,9	370,35	284,55	% 10,08	1.741,36
Gizarte-ekintza	7.500,00	7.500,01	7.500,01		% 100,00	5.535,10
Aseguruak	22.000,00	8.147,95	8.147,95		% 37,04	10.720,99
Eraikinak eta beste eraikuntza batzuk	286.500,00				% 0,00	192.354,06
Informazioa prozesatzeko ekipamenduak eta aplikazio informatikoak	15.000,00	15.065,23	12.654,69	2.410,54	% 100,43	13.910,72
Eraikinak eta beste eraikuntza batzuk						111,55
Altzariak	10.000,00	5.497,26	4.293,29	1.203,97	% 54,97	6.109,50
Informazio-prozesuetarako ekipoak		59,99	59,99			118.478,78
Aplikazio informatikoak	141.100,00	117.526,25	100.192,34	17.333,91	% 83,29	2.751,06
Bulegoko materiala	5.000,00	2.645,66	2.619,08	26,58	% 52,91	14.873,29
Prentsa, aldizkariak, liburuak eta beste argitalpen batzuk	10.000,00	16.418,06	16.228,86	189,2	% 164,18	225,5
Posta bidezko komunikazioak eta mezularitza	4.000,00	1.091,16	921,68	169,48	% 27,28	1.082,16
Lokomozioa eta egonaldi-gastuak	18.000,00	17.713,31	15.399,24	2.314,07	% 98,41	9.406,26
Protokoloa eta ordezkaritza	6.000,00	1.243,15	1.243,15		% 20,72	456
Komunikazio instituzionala, publizitatea eta propaganda	18.000,00					
Juridikoak eta auzibidekoak	5.000,00					
Bilerak, konferentziak eta ikastaroak	15.000,00	4.898,67	4.898,67		% 32,66	3.460,03
Bestelako hainbat gastu		10.067,36	10.067,36			581,39
Argitalpenak argitaratzea eta banatzea	10.000,00					
Banku-zerbitzuak eta antzekoak		31	31			14.914,11
Azterlanak, txostenak, aholkularitza		6.050,00	6.050,00			
Profesional independenteen lan teknikoak eta zerbitzuak	32.500,00	5.687,00	484	5.203,00	% 17,50	9.637,77
Enpresentzat, familientzat eta irabazi-asmorik gabeko erakundeentzat	9.000,00					
Eragiketa arruntak guztira:	2.944.595,00	1.541.466,31	1.493.324,04	48.142,27	% 52,35	1.677.036,43
Aplikazio informatikoak	80.000,00	53.341,71	44.625,03	8.716,68	% 66,68	46.222,21
Altzariak	12.000,00					1.123,10
Bulegoko ekipoak		3.291,20		3.291,20		
Informazio-prozesuetarako ekipoak		1.560,90		1.560,90		
Kapital eragiketak guztira:	92.000,00	58.193,81	44.625,03	13.568,78	% 63,25	47.345,31
Guztira	3.036.595,00	1.599.660,12	1.537.949,07	61.711,05	% 52,68	1.724.381,74



Diru-sarreraren aurrekontua

Azalpena	Behin betiko aurrekontu-aurreikuspenak	Onartutako eskubideak	Diru-bilketa garbia	Betearazpenaren %	Onartutako eskubide garbiak 2022
Aparteko diru sarrerak EAEko administrazio orokorretik	2.650.200,00	2.650.200,00	2.650.200,00	% 100,00	6.417,40 1.856.779,00
Eragiketa arruntak guztira	2.650.200,00	2.650.200,00	2.650.200,00	% 100,00	1.863.196,40
EAEko Administrazio orokorretik	15.000,00	15.000,00	15.000,00	% 100,00	15.000,00
Diruzaintzaren geldikina	371.395,00				
Kapital eragiketak guztira	386.395,00	15.000,00	15.000,00	% 3,88	15.000,00
Guztira:	3.036.595,00	2.665.200,00	2.665.200,00	% 83,84	1.878.196,40

Aurrekontu-emaizta

Kontzeptuak	Onartutako eskubide garbiak	Onartutako obligazio garbiak	Uneko ekitaldiko aurrekontu-emaizta	2022ko ekitaldiko aurrekontu-emaizta
a) Eragiketa arruntak	2.650.200,00	1.541.466,31	1.108.733,69	186.159,97
b) Kapital eragiketak	15.000,00	58.193,81	(-43.193,81)	(-32.345,31)
I. UNEKO EKITALDIKO AURREKONTU EMAITZA (I=a+b+c+d)	2.665.200,00	1.599.660,12	1.065.539,88	153.814,66
AURREKONTU EMAITZA DOITUA (I+II+III)	2.665.200,00	1.599.660,12	1.065.539,88	153.814,66

9.2.2 Itxitako aurrekontuen likidazioa

Aurreko ekitaldietan ordaindu gabe geratu ziren obligazioak

Azalpena	Ordaindu gabeko obligazioak urtarilaren 1ean	Egindako ordainketak
Entitatearen konturako gizarte kotizazioak	18.721,82	18.721,82
Pentsio-sistema osagarrietarako ekarpenak	2.819,64	2.819,64
Eraikinak eta beste eraikuntza batzuk	33.672,62	33.672,62
Informazioa prozesatzeko ekipamenduak eta aplikazio informatikoak	2.356,04	2.356,04
Altzariak	1.923,28	1.923,28
Aplikazio informatikoak	30.692,29	30.692,29
Bulegoko materiala	22,13	22,13
Prentsa, aldizkariak, liburuak eta beste argitalpen batzuk	223,8	223,8
Posta bidezko komunikazioak eta mezularitza	127,51	127,51
Bestelako hainbat gastu	65,91	65,91
Aplikazio informatikoak	16.926,70	16.926,70
Itxitako aurrekontuetako obligazioak- 2022	107.551,74	107.551,74



9.2.3 Ekonomia- eta ondare-emaizaren kontua

	2023	2022
2. Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak	2.665.200,00	1.871.779,00
a) Ekitaldikoak	2.665.200,00	1.871.779,00
a.2) Transferentziak	2.665.200,00	1.871.779,00
6. Kudeaketa arrunteko beste sarrera batzuk		6.417,40
A) KUDEAKETA ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA (1+2+3+4+5+6+7)	2.665.200,00	1.878.196,40
8. Langile-gastuak	(-1.337.472,21)	(-1.288.684,25)
a) Soldatak, lansariak eta antzekoak	(-1.084.357,73)	(-1.027.682,51)
b) Gizarte kargak	(-253.114,48)	(-261.001,74)
11. Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk	(-203.994,10)	(-388.352,18)
a) Hornidurak eta kanpoko zerbitzuak	(-203.994,10)	(-388.352,18)
12. Ibilgetuaren amortizazioa	(-34.070,60)	(-25.610,15)
B) KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA (8+9+10+11+12)	(-1.575.536,91)	(-1.702.646,58)
I. Kudeaketa arruntaren emaitza (aurrezkia edo desaurrezkia) (A+B)	1.089.663,09	175.549,82
II. Eragiketa ez-finantzarioen emaitza (I+13+14)	1.089.663,09	175.549,82
III. Finantza-eragiketen emaitza (15+16+17+18+19+20+21)		
IV. Ekitaldiko emaitza (aurrezkia eta desaurrezkia) garbia (II + III)	1.089.663,09	175.549,82



9.2.4 Ibilgetua

2023	Ekitaldi amaieran metatutako balioak			Ekitaldi hasieran metatutako balioak			Ekitaldiko aldaketak		Ekitaldiko amortizazioak		Baja garbiak
	EAMB			EHMB			EAL		EAm		
	EAMB (gordina)	Amortiz. EAMB	EAMB (garbia)	EAMB (gordina)	Amortiz. EHMB	EAMB (garbia)	EAL (berria)	EAL (bajak)	Amortiz. EAm	EAm (bajak)	
Aplikazio informatikoak	704.619,63	596.740,36	107.879,27	651.277,92	565.152,02	86.125,90	53.341,71		31.588,34		
Bulegoko ekipoak	20.691,99	10.238,90	10.453,09	19.633,78	10.586,43	9.047,35	3.291,20	-2.232,99	1.885,46	-2.232,99	
Ekipo informatikoak	3.031,05	1.010,73	2.020,32	5.114,01	4.287,06	826,95	1.560,90	-3.643,86	367,53	-3.643,86	
Altzariak	160.751,52	160.247,08	504,44	160.751,52	160.140,36	611,16			106,72		
Makinak eta tresnak	387,80	387,80		387,80	387,80						
Beste inbertsio batzuk	5.005,80	5.005,80		5.005,80	5.005,80						
Bestelako ekipoak	2.418,20	2.336,50	81,70	2.418,20	2.213,95	204,25			122,55		
Guztira	896.905,99	775.967,17	120.938,82	844.589,03	747.773,42	96.815,61	58.193,81	-5.876,85	34.070,60	-5.876,85	

